

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2021-01-22 OSTIRALA / 759. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

Egin zaitez bazkide!


Guaixe fundazioak bazkide kanpaina martxan jarri du

Sakanako populazioak gora egin du, 72 biztanle gehiagorekin 20.261 izatera iritsi gara / 7

Leziza ubeldearen egoerak kezkatuta arbizuarrek plataforma sortu dute / 6

"Naturanitzean Gozatzen" programan Sakanako parajeetan 8 irteera antolatu ditu Sakanako Mank-ek / 15

Nafarroako VII. Trikitixa Jaialdia izanen da hilaren 30ean, 17:30ean, lortia kultur gunean / 23



ms
Mondragon
Unibertsitatea
Goi Eskola
Politeknikoa

Goierriko Campusa

ORDIZIA

INGENIARITZA MEKANIKOA
GRADU DUALA

ATE IREKIAK
URTARRILAK 28
18:00



ONLINE

Eman izena
www.mondragon.edu/eu/ate-irekiak



Sakanan sei irakurketa talde daude.

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Liburuei bigarren bizitza bat ematen diote irakurketa taldeetan edo klubetan. Sakanan momentu honetan martxan sei talde daude, lau herritan: Irurtzunen gaztelaniazko eta euskarazko taldeak daude, Etxarri Aranatzen euskaraz, Altsasun euskarazkoa eta gaztelaniazkoa eta Olaztiko kluba, orokorrean gaztelaniaz irakurtzen dutena.

Talde gehienak sortu zirenetik joaten diren pertsonak parte hartzen dute, baina irekiak dira, eta irakurzale berriak hartzeko prest eta gogotsu daude. Normalean bost eta hamar pertsona arteko taldeak izan ohi dira. Eta, gehienak, emakumezkoak. Irurtzongo euskarazko taldea ikasturte honetan hasi da, Pikuxar Elkartearen eta Aizpea Euskara taldearen ekimenez, eta hamar bat pertsonak parte hartzen dute, Nerea Baldak taldearen ardunadunak barne. Liburutegiarekin harremana mantentzen dute, baina liburutegitik kanpo antolatzen den talde bakarra da. Gaztelaniazko taldea 2009. urtean sortu zen, koordinatzailea Sofia Villegas da eta bost pertsona inguru biltzen dira.

Liburuen erradiografoak

Liburu bat irakurtzen dute eta, ondoren, kontakizunaren nondik norakoak aletzeko elkartzan dira. Irakurketa taldeak, irakurle taldeak edo irakurle klubak dira, eta, momentu honetan, Sakanan sei daude; erdiak, euskaraz

Etxarri Aranazko taldean iaz arte zazpi pertsona "finko" joaten ziren, baina pandemiagatik bik joateari utzi diote eta orain bost pertsonako talde bat osatu dute. "Beti saiatzen gara jendea animatzen, baina ez dugu lortzen. Baina gustatuko litzateke

**SAKANAN SEI
IRAKURKETA TALDE
DAUDE, LAU
HERRITAN, ETA
ERDIAK EUSKARAZ**

ke jende gehiago etortzea, esperientzia gehiago ezagutzea". Taldea duela ia hamar urte sortu zen Aingeru Mikeori esker: "Liburutegian arazo batzuk egon ziren eta batzorde bat sortu genuen. Bertan komentatu genuen interesgarria litzatekeela talde bat sortzea. Publikoa zen eta hasieran bederatzi bat pertsona etorri ziren. Orain arte". Hasieran Mikeo dinamizatzailea izan zen, "baina konturatu nintzen lotura edo atxikimendua txikia zela". Beraz, "konpromisoa" denena izateko

arduradun papera txandakatzen dute.

Altsasuko liburuzainak, Mari Luz Oyarbide eta Elena Aristorena, dira bi taldeen koordinatzaileak; lehenengoa euskarazko hizketaldiena eta bigarrena gaztelaniazkoena. Euskarazkoa

**HILABETEAN EDO
HILABETE ETA ERDIAN
BEHIN ELKARTZEN
DIRA, TALDEAREN
ARABERA**

nahiko talde berria da, eta parte hartzaile gehiago hartzeko prest daude. Gaztelaniazkoa hizketaldi literarioa Sakanako beterranoa da: duela 27 urte sortu zen, eta parte hartzaileen artean ia hasieratik joaten direnak daude. Beste batzuk beranduago sartu ziren, baina jarraitzen dute. Beterre, solasaldiak irekiak dira. Pandemiagatik sortutako egoeragatik irakurketa taldeen egutegietan etenaldia egin zuten, baina dagoeneko aurreikusitakoarekin jarraitzen dute.

Olaztiko irakurketa taldeak hamar urte baino gehiago ditu eta bere koordinatzailea Eduardo Mayordoko liburuzaina da. Egun sei edo zazpi pertsonak parte hartzen dute, baina garrantzitsuena "bizirik" egotea dela aipatu du Mayordomok, "are gehiago gaur egungo egoerarekin". Taldearen "nukleoak" hasieratik darama, baina jendea hartzeko "tokia" dagoela esan du liburuzainak.

Pandemiak ere beste taldeetan eragina izan du, Arakilgo ostegun zoriontsuak deitutako ekimena, momentuz, ez dute egiten. Bestetik, Arbizuko liburutegiak bultzatuta pixkanaka irakurke-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



Irurtzungo irakurketa klubak

- **Euskarazko taldea** hilabete hasierako asteazkenean biltzen da.
- **Gaztelaniazko taldea** hilabetearen behin biltzen da, astelehen batean, 18:00etatik 19:30era.

ta taldea sortzen ari dira, lehenengo urratsak eman dituzte; Amets Arzallusekin solasaldia antolatu zuten, eta otsailerako Miren Amuriarekin beste bat egitea aurreikusi dute.

Elkarbanatu

Irakurketa talde hauetan parte hartzeak lehenengo arrazoia irakurtzea gustatzen zaiela da. Baina ez da bakarria. Ezta garrantzitsuen ere. "Aberasgarria" dela aipatu dute parte hartzaileetako askok. Liburuaren ikuspuntu desberdinak entzuten dituzte ere. "Bakoitzak bere kabuz irakurritako aurkituko ez dituen hausnarketak lortzeko aukera ematen du, baita liburu berriak aurkitzeko eta elkarbanatzeko aukera ere", aipatu du Irurtzungo taldeko kide batek. Euskarazko taldearen kasuan, euskaraz gehiago irakurtzeko elkartzeko dira: "Euskara ikasle bat ere badago, irakurritako eta solastuz hizkuntzan trebatzeko aukera ikusi zuena", azaldu dute Irurtzungo taldeak. Irakurtzea normalean ekintza bakartia da, eta taldean irakurritakoari buruzko zalantzak argitzeko eta pentsatzen dutena partekatzeko aukera dutela gaineratu dute.

Irakurketa talde bakoitzak funtzionatzeko modu bat dauka. Baina guztiek zenbait elementu elkarbanatzen dituzte: besteak beste, elkarrekin ekimen bat egiteko, sozializatzeko, literaturaz gozatzeko eta liburu

Etxarri Aranazko irakurketa taldea

- **Euskaraz.** Hilabete eta erdian behin elkartzeko dira, ostegunetan, 19:00etan



Irurtzungo irakurle taldea. UTZITAKOIA

buruz hausnartzeko elkartzeko dira parte hartzaileak. Hilabetearen behin edo hilabete eta erdian behin egiten dituzte topaketak, taldearen arabera. Tarte horretan proposatutako liburuak irakurri behar dute. Nafarroako Liburutegi Sareak irakurketa taldeei liburu loteak eskaintzen dizkiete, eta normalean hortik aukeratzen dituzte liburuak. Lote bakoitzak hogeita ale ditu, irakurlearen artean banatzeko.

Liburuaren hautaketa

Irurtzungo bi irakurketa taldeetan, esaterako, liburu loteetatik aukeratzen dute irakurtzeko liburuak. Gaztelaniazko taldearen "koordinatzaileak" aukeratzen ditu, parte hartzaileek aipatu duten bezala. Hala ere, parte hartzaileek beraiek ere

liburuaren bat proposatu dezakete.

Euskarazko taldearen kasuan ere, "hortik interesatzen zaiguna" eskatzen dute. Talde hasiberria da, eta "momentuz" horrela ari dira. Etxarri Aranazko irakurketa taldean ere loteetatik aukeratzen dute, baina urtean zehar estilo eta genero desberdinak irakurtzea proposatu zuten duela zenbait urte: "Denetarik irakurtzen saiatzen gara". Altsasuko taldeetan tertulien koordinatzaileak aukeratzen dituzte irakurri beharreko liburuak. "Eta normalean oso aukeraketa ona egiten dute". Olaztiren kasuan ere liburuazainak aukeratzen dituzte irakurketak, "tal-

dean galdetu ondoren". Oso luzea ez izatea, ezta oso laburra ere, oso astuna ez egitea gero "sakontasunez" hitz egiteko eta jendea "engantxatzen" duten liburuak aukeratzen saiatzen da.

Saio batetik bestera parte hartzaileek aukeratutako liburuak irakurri behar dute, eta gustatu hala ez gehienek bukatzen dutela aitortu dute. "Irakurtzeko astirik ez dudanean ere taldean komentatzen dut, baina solasaldia joaten naiz, besteen hausnarketak

entzuteko", aipatu dute Irurtzungo taldeak. "Liburu bat irakurtzearen prozesuaren parte bada, eta gustu aniztasun horrek taldea aberastu du". Ahalegina berez egiten duten, eta bada denbora ematen badiot bitan irakurtzen duena ere. Liburuak bukatzea eta solasaldian parte hartzea solaskideekin hartzen duten konpromisoa bat dela aipatu dute Altsasutik.

Izan ere, irakurketa taldeen alde garrantzitsuenak, liburuak irakurri ez ezik, liburuaren ikuspegi desberdinak azalera da. Liburuaren irakurketa aktiboa egiten dute, eta gero solasaldian bakoitzak bere ikuspuntua, ulertutakoa, gustatu zaiona edo ez eta abar elkarbanatzen du: "Aberasgarria da iritziak kontrajartzea", "ideiak elkarbanatzea", "prisma desberdinetatik irakurtzen duzu", "hainbat hausnarketa ateratzen dira", "ikasketa positiboak ateratzen dira", "ezagutzak elkarbanatzea", "literaturaz hitz egiten ikastea", "zure buruari gutxienez liburu bat behintzat irakurtzera behartzeko", "euskaraz gehiago irakurtzeko"... Liburu bati buruz hitz egitea baino gehiago badira literatura hizketaldiak. Liburuaren erradiografia egiten dute taldeetan, datu txikiak ere ateratzen dute: "Baliteke ni zerbait ez konturatzea eta beste norbaitek ateratzen du, eta liburuaren zentzu osoa aldatzen zait".

Etxarri Aranazko taldearen kasuan, gainera, aldi bakoitzean arduradun bat izendatzen dute; beraz, arduradun horrek liburuak irakurri eta liburuaren inguruko eskema edo lantxo bat egin behar du, gelditu aurretik taldekideei bidaliko diena. "Etxerako lanak" egiten dituzte. "Solasaldia joan aurretik irakurtzen ditugu, eta horrela badakigu

LIBURUA IRAKURRI ONDOREN HARI BURUZKO IRITZIAK ELKARBANATZEN DITUZTE

IRAKURTZEA "GOZAMENA" DELA DIOTE HIZKETALDIETAKO KIDEEK



Etxarriko irakurle taldea.

Liburu proposamenak

- *Feriatzaileak*, Patxi Larrion.
 - *Sunset Park*, Paul Auster.
 - *Gazurra basoan*, Alberto Ladrón Arana.
 - *Amaren eskuak*, Karmele Jaio.
 - *Basa*, Miren Amuriza.
 - *Ensayo sobre la ceguera*, Jose Saramago.
 - *El sueño del celta*, Vargas Llosa.
 - *Tenemos que hablar de Kevin*, Lionel Shriver.
 - *La lluvia amarilla*, Julio Llamazares.
 - *La cena*, Herman Koch.
 - *Stoner*, Jhon Edwards Williams.
 - *Irene*, Paul Lematrie.
 - *Nada se opone a la noche*, Delphine de Vigan.
 - *Ebano*, Riysczard Kapuscinsky.
 - *La delicadeza*, David Foenninos.
- El atentado, Yasmina Khadra
- *La voz dormida*, Dulce Chacón.
 - *El abanico de seda*, Lisa See.

nondik joko duen". Gero eskema jarraituko dute edo ez: "Baliteke pertsonaia bati buruz hitz egiten hasi eta beste gai bat atera, edo beste liburu baten aipamena egin...". Taldearekiko erabateko konpromisoa dute. Hasieran taldekideen aurrean "kostatu" daitekeena ere, taldeetan giro oso polita sortzen da. Izan ere, aipatu dutenaren arabera, sozializatze modu bat da ere. Talde txikiak direnez, eta gehienak denbora asko daramatenez, dagoeneko "kafe tertulia" bihurtu dira. Hala ere, eta talde guztietako koordinatzaileek eta parte hartzaileek errepikatzen dutenez, jende berria hartzeko gogotsu daude. Olaztiko liburuzainak aipatu duenez, liburuez, istorioez eta, oro har, bizitzaz hitz egiteko modu polita da.

Nobela eta beste

Irakurketa taldeetan "denetarik" irakurtzen dute. Genero, estilo eta gai asko lantzen dituzte. Gainera, irakurritako liburu batetik, gustu berriak sor daitezke ere. "Agian gure kabuz irakurriko ez genukeen saiakera bat irakurtzen dugu, eta beste bat irakurtzeko esaten dugu". Bestetik, irakurleen artean gustu guztietako estiloak daude, gogokoan zeintzuk diren erabakitzea zaila den: eleberria, historikoak, emakumezkoen istorioak, idazle ezezagunenak, nobela beltza eta



Altsasuko literatura hizketaldiak. UTZITAKOA

suspensezko istorioak, elkarrizketen bidezko kontakizunak, autobiografikoak, biografiak, liburu klasikoak, nobedadeak...

Solasaldirako irakurri behar duten liburuak ez ezik, tartean parte hartzaileek liburu gehiago irakurtzen dituzte. Irakurle handiak dira. Kasu honetan, norberak aukeratzen dituen liburuak dira, baina hizketaldietan ere komentatzen dituzte.

Bizitza

Irakurtzea "gozamina eta plazera" delako, eta asebetetzen duelako. Sakanako irakurle taldeetako ki-

deek aipatu dutenez, idaztearen artearen bidez liburu batean beste pertsonen pentsatzeko modutik ikasi dezakezu, eta, ondorioz, mundua ulertzeko modu bat izan daiteke. Ezagutzeko gogoia pizten du: "lehiak irekitzen dizkigu, irudimenera, sentimenduetara, ezagutzara eta pentsamenduetara", aipatu dute Irurtzundik. Zentzu kritikoa handitzeko balio du, baita urrutiti "hegan" egiteko eta "modu merkean" bidaiatzeko aukera ere ematen du, Altsasuko taldeko kideek aipatu dutenez. Liburu baten orrietan sartzeak ere "egunerokotasunetik ihes egiten laguntzen du". Bizitza lekzioak ere ikasi daitezke: "Kultura, adimena irekitzea, abstraitzeko aukera...". Zoriontasun momentuak sortzen ditu ere. Besteen bizitzak bizitzeko aukera. Edo beste modu batean ezagutu ezingo ziren sententzioak eta bizitzak ezagutzeko aukera ematen dute istorioek ere.

Olaztiko irakurketa kluba

- **Orokorrean, gaztelaniaz.** Hilabetean behin biltzen da, ostiral batean, 20:00etan.
- Herriko liburutegietan irakurketa taldeei buruzko informazio guztia helaraziko dute.

Altsasuko literatura hizketaldiak

- **Euskarazko taldea** hilabetean behin elkartzen da, asteazkenean, 18:30ean. Aurretik egitaraua publikatuta dute.
- **Gaztelaniazko taldea** hilabetean behin elkartzen da, asteazkenean, 18:30ean. Aurretik egitaraua publikatuta dute.

Liburuen bidez ere asko ikasi daitekeela aipatu dute. Kontatzen diren istorioetan aipatzen diren ezagutzak ez ezik, lengoia eta hizkuntza ikasteko aukera eskaintzen dute liburuak ere. "Hitz eta esaera berriak ikasten ditugu". Batzuek zerbait irakatsiko duten liburuak nahiago dituzte ere.

Irakurzaletasuna solasaldiekin gehituta, liburuekin sor daitezkeen esperientziak biderkatzen dira liburu bakar batengatik, hamaika ikuspuntu eta "lehi" irekitzen direlako. Normalean topaketak ordu eta ordu eta erdiko iraupena dute, eta gehienetan bukatzea kostatzen zaie. "Itxi behar dutela esatera etorri behar dira, bestela, jarraituko genuke".

Irakurketa taldeek ere literatura ekitaldiak sustatzen dituzte, eta, adibidez, idazleen hitzaldiak antolatzen dituzte, baita liburuen aurkezpenak ere.



Olaztiko irakurketa kluba, 2018an. UTZITAKOA



ASTEKOA

JOSUNE GORRITI

Hezkuntza da txertoa

Bakardadeari eta asperraldiari aurre egiteko leihatila teknologiko ezberdinez baliatu gara konfinamendu gordinean, eta baliatzen ari gara oraindik ere, COVID-19ak ekarri digun kartzela emozionalatik ateratzeko. Bitartean, Interneten kontsumitzen den pornografiaren igoera nabaria izan da. Hain zuzen, %61,3ko gorakada izan zuen mundu mailan martxoan, pornografia webgune nagusi batek iragarri zuenez, bere eduki premiumak irekian jarri ondoren.

Save The Children Gobernuz Kanpoko Erakundeak "Sexu Desinformazioa: Pornografia eta Nerabezaroa" txostena argitaratu zuen lehenengo itxialdiaren bukaeran. Honen arabera, Interneten pornografia gero eta gehiago kontsumitzen dute gure haur eta nerabeek, eta inoiz baino goizterrago murgiltzen dira bortizkeria, heteropatriarkatua eta matxismoa bultzatzen dituen pornografia eredu hegemonikoan. Eskura dituzten teknologia berriei esker, gehienak 12 urterekin hasten dira eduki hauek ikusten; baina badira 7-8 urtekoak ere. Gainera, %70ek egunero kontsumitzen dute, eta hauetatik %30ek pornografia informazio iturri zuzen bakarra erabiltzen dute sexuaz eta harreman afektiboaz informatzeko. Are gehiago, aitortzen dute fikziozko sexu eduki hauek inspiratzen dituztela beraien harremanetan ikusitakoa errepikatzen. Kezkatzeko moduko errealitatea.

Pornografia eredu hegemonikoak objektutzat hartu eta gizonen menpe jartzen ditu emakumeak, muturreko indarkeria ontzat emanez. Hemendik eraikitzen den guztia ez dator bat sexuen arteko eskubide berdintasunarekin, aldiz, gehienetan, kontrakoa bultzatzen baita; adibidez, talde bortxaketak eta emakumeen iritzia edo baimena kontuan hartu gabeko hainbat praktikak ikusi ahal dira. Bizitzaren iraunkortasunarekin zuzenean talka egiten du honek guztiak. Ez dezagun ahaztu gure neska eta mutikoen zoriontasuna, -gure jendartearen etorkizunaren arrakasta-, berdintasunean eta errespetuan kontsumitu edo egindako sexuan ere oinarritzen dela.

Errealitatea tematia da. Emakume eta haurren aurkako indarkeriarekin bukatzen hasteko sexu eta harreman afektiboaren hezkuntza irekia, berdintasunean oinarritua eta garaikoa premiazkoa dela erakusten baitigu, behin eta berriz. Berriro ere, fenomeno honi aurre egiteko gakoa edo "txertoa" hezkuntza da. Beraz, etxean landu ahal dugunaz gain, Skolae bezalako programak ohol sendoak dira, inoiz baino gehiago, gainean dugun beste "olatu" hau nabigatzeko, gure neska eta mutikoak ez daitezten ito.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



OBJEKTIBOTIK

Batek jolas, besteak ihes

Saguek eta katuek beti izan dute amodio-gorroto erlazioa, baina erlazio mota hauetan beti bietako batek besteak baino okerrago pasatzen duela badakigu. Gehienetan txikiena izaten da okerreren pasatzen duena, eta kasu honetan ere saga da. Katuak berarekin jolastu nahi du, ongi pasatu, konturatu gabe saguaren ihesak ez direla jolas, ikaratuta dagoela.

Askotan gertatzen da hau gizakion artean, ez dugu besteen sentimenduetan pentsatzen, eta konturatu gabe katuaren rolean jartzen gara. Saguaren sentipenei kasu egin behar zaie.



DUELA 25 URTE...



Drogamenpekotasunari aurre egiteko filosofia berria

Pertsonaren nortasuna eta identitatea eraikitzea, ondoren norberak erabaki dezan noiz, nola, zenbat eta zergatik kontsumitzen duen. Helburu horrekin Altsasun, Olaztin eta Ziurdian abiarazi zuten planak gizarte osoaren inplikazioa behar zuela zioten sustatzaileek. Hiru lan ildo zehaztu zituzten: familia (gurasoendako ikastaroak prestatu zituzten), ikastetxea (DBHko irakasleekin lan egin zuten) eta aisialdia (gazteria mugitzea sustatu nahi zuten).

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Herri erditik pasatzen den errekaen egoerarekin kezkatuta, arbizuar batzuk antolatu eta Leziza Bizirik! plataforma sortu dute; larunbatean aurkeztu zuen bere burua.

Lezizarekin kezkatuta daude

Arbizuko Udalak larunbatean informazio batzarra eginen du, 12:30ean, udaletxean. Udaleko ordezkariak enpresarekin izandako bileraren nondik norakoak azalduko dituzte, eta Nafarroako Gobernuak egindako txostenaren berri eman ere

ARBIZU
Arbizuko Udalak makina bat alditan jaso ditu herritarren kexuak Agotzaina enpresaren jardunaren ondorioz: usain txarrak, isuriak Leziza errekan eta bestelakoak. Ondorioz, Arbizuko Udalak hainbat salaketa jarri ditu, baita enpresak ingurumen kalteengatik isunak jaso ere. Nafarroako Gobernuaren enpresari buruzko txostena jaso zuen Arbizuko Udalak abenduaren 17an. Foru administrazioak jakinarazitakoaren arabera, Agotzaina enpresari "2001ean emandako baimenak ez du balio enpresak gaur egun duen produkzio mailarako".

Nafarroako Gobernuak Arbizuko Udalarari jakinarazi dionez, enpresak lanean segitzeko Ingurune Baimen Integratua behar luke. Baimen hori eskuratu ahal izateko hiru hilabeteko epea eman dio enpresari. Ho-

rretarako, bere azpiegituretan "aldaketa edo hobekuntzak" egin beharko ditu. Alde batetik, enpresaren emariak modu egokian neurtu ez direnez, 3 hilabete dituzte kreditatuta dagoen laborategi baten emari neurketaren txostena aurkezteko. Bestetik, enpresaren produktioetik sortzen diren lohiak ez dira toki itxian tratatu eta horrek usainak sortu ditu. Beraz, 3 hilabete dituzte toki itxi bat egokitu eta han lohi horiek tratatzeko.

Bestalde, foru administrazioak enpresari eskatu dio isuriak bideratzeko kanala ez dagoela homologatuta eta, esandako epean, isuriak kanalizatu beharko ditu enpresak. Aipatu isuriaren inguruko azterketa txostena aurkeztu beharko du ere. Errekako uretan suspentsioan dagoen bateriaren baloreak behar baino handiagoak dira. Gauza bera gertatzen da

oxigenoaren eskaera kimikoarekin. Horregatik, Nafarroako Gobernuak Agotzaina enpresari eskatu dio araztegia egokitzeko proiektua eta obra egitea hiru hilabeteko epean, horrela isuri horiek balore egokiak emateko. Plataformako kideek azaldu dutenez, "enpresak hasieran zuena baino askoz ere produkzio handiagoa du eta araztegiak gainezka egiten du. Hango aparrak errekan bukatzen du".

Foru administrazioak ikuskatutako arazoak "oso garrantzitsuak" direla argitu du. Eta hiru hilabeteren ondoren "txostenak

KUTSADURAREN ERAGINEZ LEZIZA "HILIK" DAGOELA ETA ETXEETAN USAINAK DITUZTELA DIOTE

Lezizaren aldeko plataforma bat

Leziza ubeldea bizirik nahi dutelako elkartu da arbizuar talde bat, herria erditik zeharkatzen duen errekaen alde egiteko. Leziza bizirik! herri plataformako kideek bere burua aurkezteko prentsaurrekoan jakinarazi zuten, "azken urteetan Agotzaina enpresak egiten dituen isurketen ondorioz, erreka hiltzen joan zaigu, bizirik behar lukeen erreka hilik dugu". Gaztigatu dutenez, "kutsaduraren eraginez arrainak



Sinadura bilketa hasia da.

eta, orokorrean, ubeldearen biodibertsitatea desagertzen joan dira".

Ingurumen kalteez aparte, arbizuarren "osasunarekiko kezka" ere badute plataforman, "herriko etxe askotan usain jasanezinak nagusitu dira, errekan bertan behin baino gehiagotan usain txarrak gain apar marroia begien bistan ikusi dugu. Urteik urtera egoerak okerrera egin du eta herritarren haserrearen handitzea joan da, beraz, egoera honi aurre egiteko ordua iritsi dela uste dugu".


Plataformako kideek enpresari "erantzukizuna" eskatu eta exijitu diote "behar dituen neurriak hartzea, erreka bizitasuna bueltatzeko eta arbizuarren ongizatearen eskubidea berreskuratzeko". Jakinarazi zuten, enpresak "irabazi handiak" ditu (2,6 milioi euro 2019an), "beraz inbertitu dezala Leziza garbi mantentzeko egin behar dituen lanetan".

esandakoa bete den egiaztatzeko behar bezalako inspektzioak" eginen ditu. Egokitzapen horiek guztiak egin ondoren, enpresaren jardunaren jarraipena foru administrazioarena izanen da.


Enpresaren isurketen inguruan informatzeko Arbizuko Udalak larunbaterako 12:30ean deituta-

ko informazio batzarra ez da mota horretako aurreneko bilkura. Herritarrei ubeldearen egoeraren berri emateko azaroaren 28an beste bat egin zuten. Han izan ziren hainbat arbizuarrek pausoa ematea eta Leziza Bizirik! Plataforma osatzea erabaki zuten.

Sakanako biztanleria herrika 2021eko ilbeltzaren 1an



Sakanako biztanleria generoka



Ergoienak biztanleak galdu zituen beste urte batez.

Hamar urteko aldea

2020ko eta 2011 datuak elkarren ondoan jartzean ibarreko biztanleria 515 pertsonatan (%2,49) jaitsi dela ikusten da. Generoari erreparatuta, joan den urte hasieran 2011n baino 300 gizonezko gutxiago zeuden (%2,80); emakumezkoak, berriz, 215 (%2,14) gutxiago ziren. Hamarkada horretan populazioa zazpi udalerrietan igo da. Portzentajeari erreparatuta, Bakaiku (%5,88;20) eta Irañeta (%5,63; 9) dira bilakaera positiboena izan zuten udalerriak. Haien atzetik zeuden Lakuntza (%3,07; 38), Arbizu (%2,50; 27), Iturmendi (%1,99; 8), Arakil (%0,63; 6) eta Etxarri Aranatz (%0,48; 12).

Herritar galera izan duten zortzi udalerrietatik hiru nabarmen-tzen dira: Ergoiena (%12,32; -52), Ziordia (%12,28; -49) eta Olatzagutia (%12,15; -206). Jaitsiera txikiagoak izan ziren beste bost udalerrietan: Urdiain (%7,42; -53), Uharte Arakil (%5,62; -47), Arruazu (%5,36; -6), Altsasu (-%2,48; -190) eta Irurtzun (%1,40; -32).

Nafarroa

Herrialdeak populazioaren hazkundearen joerari eusten dio eta joan den urte hasieran 6.983 (%1,07) nafar gehiago zenbatu zituzten. Nafarroan 6.745 (%2,06) emakumezko gehiago zeuden gizonezkoak baino. Zehazki, 333.971 (%50,51) emakumezko zeuden 2020ko ilbeltzaren lehen Nafarroan, gizonezkoak, berriz, 327.226 (%49,48). Nafar guztien artean sakandarrak %3,06 ginen 2020an, aurreko urtean baino 0,03 gutxiago. 2017tik 2020rako biztanleriaren bilakaeran Sakanak %1eko pisua galdu du Nafarroan.

Ibarreko biztanleria %0,36 hazi zen

Sakanan 20.261 herritar bizi ginen 2021ko ilbeltzaren 1ean, aurreko urtean baino 72 biztanle gehiago. Generoari erreparatuta, 10.432 sakandar gizonezkoak dira eta 9.829, berriz, emakumezkoak. Bien arteko aldea handitu egin zen 32 gizonezko gehiagorekin

SAKANA

Ibarreko populazioaren joerak gorako norabidea hartu du atzera ere. Sakanak 2014 eta 2017 urteen artean 624 biztanle galdu zituen. 2018an ibarrak hamar biztanle irabazi zituen, baina 2019an sei galdu zituen. Erroldaren datu berriak 2020ko ilbeltzaren lekoa da eta aurreko ur-

tearekin alderatuta Sakanak 72 biztanle gehiago zituen (52 gizonezko eta 20 emakumezko). 20.261 herritarretatik 10.432 (%51,49) gizonezkoak dira eta 9.829 (%48,51) emakumezkoak, bien arteko aldeak 0,09 egin du gora eta errolda egiterako anean emakumezkoak baino 603 gizonezko (%5,78) gehiago zeuden Sakanan.

Udalerrika

Ibarreko 15 udalerrietatik bederatzietan igo da populazioa. Portzentajeari erreparatuta, hiru udalerririk dira puntu bateko igoera baino gehiago izan dutenak: Arakil (%3,11), Iturmendi (%1,99) eta Urdiain (%1,23). Gainontzeko udalerrietan herritar hazkundeak apalagoa da: Irurtzun (%0,63),

Ziordia (%0,57), Etxarri Aranatz (%0,56), Arbizu (%0,45), Altsasu (%0,30) eta Olatzagutia (%0,07). Azken udalerririk horrek aurreko urteetako beherako joera hautsi du, baina ez da bueltatu 1.500 biztanle baino gehiago izatera. Bestalde, Etxarri Aranatz 2.500 biztanleko langa gaintzetik gertu gelditu da; 2018an lortu zuen, 2.503 etxarriar izanik.

Herritarrek galdu dituzten sei udalerririk artean hiru dira puntu batetik gorako galera dutenak: Arruazu (%3,64), Uharte Arakil (%1,99) eta Irañeta (%1,74). Gainontzeko herrietan biztanleria galera txikiagoa izan zen: Bakaiku (%0,55), Ergoiena (%0,54) eta Lakuntza (%0,31). 2018an eta 2019an herritar kopuru bera izan zuen Uharte Arakil galera handia izan duen herrien artean dago.

C.A. OSASUNA
VS
GRANADA C.F.



URTARRILAK 24, IGANDEA

14:00-16:00

(IRRATIKO KONEXIOA 13:45EAN)

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia^{.EUS}

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



Osasun etxea ez betetzeko, liburutegian jarri dituzte txertoak. NAFARROAKO GOBERNUA

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Osasunbidea adinekoren egoitzetan dauden pertsonen hasi zitzaien COVID-19 gaitzaren kontrako txertoa jartzen. Gaitzaren kontrako txertaketan pauso berria eman zuen ostiralean. Txertaketa fase berri hori Etxarri Aranzko liburutegian eta Altsasuko Burunda frontoian hasi zen. Aurrenekoan 80 bat txerto jarri zituzten eta atzenekoan, berriz, 115 (tartean Josefina Arregi klinikako langileak). Irurtzango osasun eskualdearen txanda astelehenean izan zen eta 130 pertsona txertatu zituzten. Beraien kabuz txertaketa tokira joaterik ez zuten pertsonak batetik bestera eramaten ibili ziren Nafarroako DYako kideak. Eta mendekotasun oso handia zuten kasuan txertaketa taldeko erizainak etxeetara joan ziren.

Prozedura

Gonzalo Montoya altsasuarra Nafarroako Gobernuak ospitale kanpoko larrialdietako zerbitzuko osasun larrialdietako teknikaria da. Foru administrazioak hedatzen dituen COVID-19aren kontrako txertaketa ekipoetako kidea. Lantalde horiek bera bezalako larrialdietako teknikari batez, administratzaile batez eta bi erizainez osatuta daude. 07:30ean guztia prestatu ondoren Iruñeko Refenatik dagokien Nafarroako herrira abiatzen dira. Haiei, osasun etxeetako erizain bat batzen zaie herrian, boskotea osatzeko.

Txertaketa hasi da Sakanan

Nafarroako Mendekotasun Agentziak mendekotasun handia dutela aitortu dien eta beraien etxeetan bizi diren pertsonen, haien senideek, Etxez etxeko Arreta Zerbitzuko langileek eta osasun arloko langileek jaso dute txertoa

Cristina Villanuevak, Lehen Arretako zuzendaritza ordetzako asistentzia zaintza eta etxeko arretaren ataleko buruak, azaldu zuenez, "08:00etarako herrian gaude. Dagokion tokian sarrera eta irteerako zirkuitua egin behar da. Osasun tarreak mantentzeko neurriak jarri behar dira. Txertaketa gunez aparte, behaketa toki bat ere prestatzen dugu".

Osasun etxeetatik aurreko egunetan txertaketarako hitzorduak emateko deika ibili ziren. Villanuevak txertaketaren dinamika horrela laburbildu du: "Lehenik, txertatzera etorri den

**JENDE PILAKETAK
SAIHESTEKO OSASUN
ETXEETATIK KANPO
ARI DIRA TXERTAKETA
EGITEN**

pertsonaren balorazioa egiten dugu. Zein botika hartzen duten galdetzen zaie, eta txertoarekiko inolako kontraindikaziorik ez izatea baloratu behar da". Pertsonaren osasun historia guztiz errebisatu ondoren, txertaketaren ondoren kontuan izan beharrekoaren berri ematen zaio jendeari. Ondoren, txertaketa gunera pasako da. 18 urtez azpikoak eta haurdun daudenak etxera bidaliko dituzte bueltan.

Zitadana

Villanuevak aitortu duenez, "txertoaren zitzadaren atzean lan handia dago". Txertoak jartzeko prestakuntza berezia behar da. Nafarroan txertoak jartzeko 200 bat profesional trebatuta daude, "baina prestakuntza saio gehiago aurreikusi dira", gaitzatu du. Haietako bat da Irantz Zeberio Mazkiaran,

Altsasuko osasun etxeko erizaina. Ostiralean txertaketa taldearekin bat egin zuen eta bezperan ikasitakoa praktikan jarri zuen.

Villanuevak aitortu du txertoaren logistika "zaila" dela, "zero azpitik 80 gradutara kontserbatu behar delako ultra izozkailu batean. Handik ateraz gero 2 eta 8 gradu arteko tenperaturan bost egun besterik ez du irauten. Etengabe zaindu behar da eta hotz katearen kontrol zorrotza eskatzen du. Bai honekin bai beste txerto batzuekin. Baina hau bereziki zaila da". Zailtasun gehiago gaineratu ditu Villanue-

**ORAIN ARTE
JARRITAKO TXERTOAK
PFIZER-BIONTECH
ENPRESAK
GARATUTAKOAK DIRA**

vak: "txertoa dagoen ontzia ezin da astindu, eta behin prestatuta dagoela ezin da garraiatu".

Zeberio Villanuevarekin bat egin du: "ez da besteak bezalako txertoa". Erizainak azaldu duenez, "txertoaren ontzi bakoitzetik bost dosi ateratzen ditugu, banaka prestatu behar dira eta denbora kostatzen da". Txertoaren potentxoan 1,8 mililitro serum fisiologiko sartu behar dute lehenik. Disoluzioa eginda, xiringan nahasturaren 0,3 ml hartzen dituzte. Behin txertoa prestatuta, "besoaren goiko partean jartzen da, deltoides giharrean, muskulu barneko txertoa baita".

Txertoa hartzen duten pertsona guztiak eserita gelditzen dira 15-20 minutuz. Zeberio azaldu duenez, "txertoak erreakzioen bat sortzen dion ikusteko. Prebentzio moduan da. Halako erreakzioen aurrekariak izan dituztenak ordu erdi egon behar dute txertaketaren ondoren. Normalena ezer ez gertatzea da. Eta bestela erizainak ondoan gaude". Zeberio jakinarazi duenez, deitutako gehien-gehienak joan ziren txertatzera.

Unitate mugikorra

Nafarroako Gobernuak txertaketa estrategiaren barruan, Europa Okzitaniako Balio Anitzeko Unitate Mugikorra osasun-unitatea du COVID-19aren kontrako txertaketarako. Osasunbidearen asmoa da unitate mugikorra herri mugitzea. Montoyak zehaztu duenez, "jendea osasun-unitate horretara joan da txertoa jartzera eta osasun etxean lasaigo ibiltzeko aukera izanen da". Zeberio nabarmendu duenez, "jende asko da txertatu beharrekoa eta osasun etxean hori ezin da egin eta, horregatik, etorri gara frontoira gripearen eta COVID-19aren kontrako txertoak jartzera". Montoyak jakinarazi duenez, "asmoa zen ostiralean Etxarri edo Altsasun jartzea, baina logistika arazoengatik Oronoz-Mugairin mustu zuten asteartean".

Unitate mugikor hori Toulouso Ospitale Unibertsitarioak (CHUT) eraiki du, EGALURG mugaz gaindiko lankidetzara saiarene esparruan, Pirinio aldeko larrialdietako eta hondamendietako osasun laguntza hobetzeko Europako ekimen baten barruan. Osasun unitatearen herri batetik besterako ibilbidean Sakanara noizbait ekarriko dute.



Errepidearen beheko partean errotonda egingen da, saihesbidea ezkererantz aterako da.

Saihesbideko lanak uda hasieran hasiko dira

Hilabete honetan behin betiko proiektua bukatu eta lanak emateko deialdia egingen du gobernuak

IRURTZUN

Abenduan bi bilera egin zituzten Irurtzongo Udaleko eta Herri Lan eta Azpiegituretako Zuzendaritzako ordezkariak. Bilkura haietan Irurtzongo saihesbideko azken zehaztapenak itxi zituzten eta dagoeneko Lurralde Kohesioko Departamentuak saihesbideko behin betiko proiektua egiten ari dira. Aitor Larraza Carrera alkateak aurreikusen du garagartzaro edo garil aldera hasiko direla lanak. Gaztigatu duenez, "urtea despeditzerako bukatuta egon behar du saihesbideak".

Oskiaten dagoen harrobiak eta industrialdeak sortzen duen kamioi trafikoa Irurtzun erditik pasatzen da. Baita ibilgailu ugari ere. 90ko hamarkadatik udalak eta herritarrak saihesbidea egitea aldarrikatu dute.

Bestalde, Irurtzongo Udalak Nafarroako Gobernuarekin

harremanetan segitzen du kameneroen orubea eta haren parean dauden etxebizitzaren etorkizuna zehaztu asmoz. Etxebizitzaren gaiari lotuta, Lurralde Antolamendurako, Etxebizitzako, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak Etxebizitza Hutsen Errola osatzeko helburuz bizilagunak ez duten etxeak atzemateko lanean ari da. 3 eta 20 etxebizitza artean dituzten jabe juridiko eta fisikoei gutunak bidali zitzaizkien abendu akaberan, guztira 884. Irurtzuten 25 etxebizitza jaso dute halako gutuna. Idatzi horretan jabeak azaltzen zaie Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren alokairua sustatzeko bere esku jartzen dituen neurriak eta pizgarriak zein diren. Helburua litzateke jabeek beraien etxebizitza huts horiek Nasuvinsa enpresa publikoaren alokairu politan sartzea.

Autokarabanendako guneko lanak hasi dira

Zortzi edo hamar ibilgailurendako edukiera izanen du eta bizikletak garbitzeko gunea hartuko du ere. Lanak otsaila akaberarako despedituko dituzte. Irurtzongo Udaleko arduradunen iritziz, "leku bikaina da" natur jardueren abiapuntu gisa

IRURTZUN

Asteartean hasi ziren autokarabanendako eta bizikletendako turismo zerbitzuen guneko lanak. Lakita enpresak hartu du lan horiek egiteko ardura eta haiengatik 51.000 euro (BEZ) kanpo jasoko ditu. Lan horiek egiteko Irurtzongo Udalak Cederna-Garalur elkarteak emandako dirulaguntza lortu du, 46.785,23 euro. Garalurren dirulaguntza horiek Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren landa garapenerako funtsen finantziazioa dute.

Zerbitzu eremu horrek hiru espazio izanen ditu. Batetik, autokarabanen ur biltegia betetzeko eta ur grisak eta beltzak deskargatzeko gunea. Txirrinulak garbitzeko mangera bat egonen da. Bestetik, ibilgailu horiek aparkatzeko leku bat: Inguru horretan autokarabanak eta karabanak bakarrik egon daitezke. Han ibilgailuko gurgipen zorua-rekin kontaktuan egon beharko dute; ez da onartuko ez hanka egonkortzailerik, ez galtzarik, lurraren maldagatik ez bada. Azkenik, egonlekua egonen da. Karabanek ezin izanen dute ibilgailuaren perimetroa gainditzen duten berezko elementurik zabaldu, egonleku komun bat presatuko da erabiltzaile guztienda-



Langileen lehenengo egitekoetako bat lurra mugitzea izan da.

ko, mahaiak, paperontziak eta abar jarrita, espazioa zainduta eta garbi egon dadin.

Sarbideak kontrolatzeko sistema batek ikuskatuko du eremurako sarbidea, eta hasiera batean erabilera kobratzea aurreikusi ez bada ere, banku txartelaren bidez identifikatu beharko da, bai sarreran, bai irteeran, betiere barreren eta matrikula irakurgailuaren bidez.

Kokapena

Plazaolako bide berdeko zubiaren eta beilatokiaren artean egonen

da autokarabanak eta karabanak gelditu eta aparkatzeko eremua. Espazio horri Irurtzongo Udalak turismo zerbitzua deitu dio, Plazaolako bide berdearen ondoan dagoelako, eta haren erabiltzaileei eta Bi Haizpetara eskalada egitera joaten direnei zerbitzua ematera bideratuta dagoelako. Irurtzongo udaleko arduradunen iritziz, "leku bikaina da" natur jardueren abiapuntu gisa: Plazaolako bide berdean bizikletan ibiltzeko eta zailtasun ertaineko mendi eta eskalada ibilbideen abiapuntua ere bada.

Eskolen eraikinarekin zer egin erabakitzeke bilera

Gaur, 18:30ean, udaletzeko goiko areto handian udal arkitektoak landu dituen bi proiektu aurkeztuko ditu

BAKAIKU

Bakaikuko plan estrategikoan hiru gai nabarmendu ziren: auzolana, eskolak izandako eraikina eta etxebizitza. Aurrekoa parte hartze prozesu baten bidez arautu ondoren, bakaikuarrak

2019ko udazkenean eskolen eraikinekin zer egin aztertzen hasi ziren. Lehenengo bileran eraikinak izan zitzaizkeen erabilera posibleak zerrendatu zituzten herritarrek: erabilera anitzeko gela, gaztetxokoa edota ludoteka

hartuko duen espazioa sortzea edota etxebizitzak. Bigarren bileran bi aukeren artean eztabaidatu zuten: egungo eraikina mantendu edo bota eta berria eraiki. Ekarpinak lantalde batek udal arkitektoarekin landu ditu eta hark ondutako bi proiektuak gaur aurkeztuko ditu. Bakaikuko Udalak herritar guztiak bilerrara gonbidatu ditu, "gaur proiektu horiekin zer egin erabakiko baita". Bakaikuko eskolako eraikin zenak 575 m² azalera du, bi solairuetan banatuta.



Eskola eraikina zenaren aireko ikuspegia. BAKAIKUKO UDALA

"Jabetu behar gara tokiko kazetaritzaren garrantziaz"

GOIZEDER ANTON ITURRALDE GUAIXE FUNDAZIOAREN KOORDINATZAILEA

Guaixe fundazioak bazkide kanpaina berria abiarazi du. Toki publikoetan aldizkariak uzten dira eta aldaketak izanen dira. Guaixe laguntzeak hilean euro bateko kostua du

Erredakzioa SAKANA

Gerta daiteke bakarren bateko oraindik ez jakitea, baina pasa den astean bi Guaixe astekari desberdin argitaratu genituen. Bata, bazkideek etxean jaso zutena, edukiz betetako 24 orriz osatuta zegoen. Gainera, bazkideek urteko lehen zenbakiarekin batera poltsa beltz bat jaso zuten opari, baita urteko egutegia ere. Bigarren ereduak toki publikoetan utzi zen. Astekari horiek aurrekoaren azal eta kontrazal bera zituzten. Baina mamia 3. orrian bukatzen zen. Gainontzeko orri guztiak txuri zeuden, informazioz gabe. Guaixe fundazioko Goizeder Anton Iturralde kudeatzailearengana jo dugu argibide eske.

Bi Guaixe desberdin banatu ziren joan den ostiralean. Ez zen inprentako akatsa izan, ezta?

Izan zitekeen arren ez zen inprentako akatsa izan. Inprentakoen konplizitateak lagunduta, taldetik sortutako ekimen zoro eta zirikatzaile baten emaitza izan zen. Bazkidetza kanpaina berri baten hasiera hain zuzen ere. Denboran luze joango den kanpaina, aldaketak ekarriko dituen...

Zer nolako erreakzioak sortu ditu bazkideen artean urtea horrela hasteak?

Erreakzioak bitxiak izan dira, oso goiz da oraindik balorazio zintzo bat egiteko. Jaso ditugun mezuetan oinarrituta, ondorioz-

Hilabetean euro bat

Urtetan izoztuta izan ondoren, aurtun Guaixe fundazioaren urteko kuota 50 eurotik 60 eurora pasako da.

Hilabetean euro bat?

- Bai. Trukean astekaria, irratia eta web orria.

Kuota 60 eurokoa da!

- Bai. Baina Guaixe fundazioak Mekna gizarte intereseko zigilua du eta horrek gure bazkideendako onura fiskalak dakartza.

Azaldu, mesedez?

- Errenta aitortpena egiten duzunean pagatu dituzun 60 euro horietatik 48 euro bueltatuko dizkizu. Beraz, bazkideen benetako ekarpena 12 euro dira, euro bat hilabeteko.

Ordainketa modua?

- Kontu korrante bidez.

Ordainketa, noiz?

- Martxoan.

Hori da dena?

- Ez. Bazkide berriek opari bat jasoko dute.

tatu duguna zera da: bazkideek orokorrean eskertu dutela, emonatu denik ere izan da. Bazkide izateaz harro (zentsurik goxoenean) sumatu ditut asko. Pozik! Beharrezkoa zela deritzot.

Egia da ekintza ulertzea ez dela erraza izan, inolako azalpenik eman gabe egin dugun zerbait izan da. Sorpresa izan behar zuen, zer esana ematea zen helburuetako bat, kezka piztea, zalantzak sortu, irakurle ezberdinen artean eztabaida eragitea hain zuzen. Urteko lehen zenbakian bazkidea saritu nahi genuen, aitortza egin, urteetan zehar haien ekarpenekin urteko 365 egunetan isilpean: "animo, zuekin gaude, euskarak merezi du, Sakanak merezi du, aurrera proiektuarekin, segi kontaktzen, ez etsi" eta halako mezuekin indarra helarazteagatik, bazkide leial horri eskerrak eman nahi genizkion.

Eta bazkide ez izan eta astekaria hutsik topatu dutenen artean?

Haserrea erakutsi dute batzuk, irainak ere jaso ditugu eta zer pentsatua eman dionik ere bada. Ekintza egin eta gutxira, gure proiektura bi bazkide berri batu dira, eta orduan, ni izan naiz hunkitu dena!

Bi tirada eginda zer aldarrikatu nahi izan du Guaixe fundazioak?

Zenbaki berdina jantzita eta biluzik erakutsi nahi izan dugu, astero astero orrialde horiek betetzeak duenezkutukolan mardula agerian jarri. Ostegunero errotatibara

dotore jantzita iristeko Guaixek sekulako esfortzua egiten du, badiurudi trena galduko duela, maletan dena sartu ote duen kezka horrekin beti. Guaixe astekaria eskuarte dugunean erraza da irakurketaz gozatzea. Orriak banan-banan pasa eta ibarreko bazterretan gertatutakoez jakin nahi dugu. Hitzak hor daude baina ez dira ezerezetik sortzen.

Aurreko astean bi ereduak alderatzeko aukera izan genuen arren, gerta daiteke egunen baten argitaratzeko aukerarik ez izatea. Irudikatzen al duzue Sakana Guaixerik gabe? Berdin webgune zein irratiarekin! Beste zerbait asmatu beharko genuke... Euskaraz, gertukoa, tokikoa, bertakoa, ondokoa... Hori bera adierazteko kontzeptu berria da zero kilometrorena. Boladan dagoen esapidea da. Kazetaritzarekin ere erabili daiteke: 0 km-ko kazetaritza.

Zer da zero kilometroko kazetaritza?

Nekazariak eta abeltzainek beraien produktuak lantzen dituzten bezala, Guaixe fundazioko kazetariak ere produktuak, informazioa, lantzen dute. Gure kasuan gertuko, tokiko, bertako, ondoko informazioa. 0 km-ko kazetaritza tokiko hedabideek eskaintzen ditugun produktuak dira. Sakanaren kasuan Guaixe astekaria, Beleixe Irratia eta www.guaixe.eus. Zure aldamenak, lagunak, senideak, lankideak dira gure albiste, erreportaje edota elkarrizketetako protagonistak. 0 km-koak dira iragarleak, Sakanakoak. Ibarretik ibarrerako sortutako informazioa. Guk gure buruaz kontatutakoa, beste batzuek gutaz konta ez dezaten. **Komunikazio burujabetza. Hala laburtu daiteke?**

Bai. Sakanan egindako eta Sakanarako produktua da lantzen duguna. Baina sakandarrak mundu guztian barreiatuta daudenez, mundura zabalduko leihota bat gara. Eta leihota horretatik mundutarrak ere gure berri jasotzen dute.

Komunitatearen, Sakanaren leihota da, beraz, 0 Km-ko kazetaritza?

Komunitate bezala elkar zaintzen dugu elkarren berri izanez, bertan iragarkiak jarriz, ibarreko establezimenduetan kontsumituz, gertuko sortzaileen eta kirolarien jarduna bultzatuz, gizarte eta ekonomia arloko kezkak azaleratuz... Sakanaren taupadak sumatzen dira gure hedabideetan. **Sakanako tokiko kazetaritza, zein lantalde dago horren atzean?**

Lantalde mundiala! Esan behar nuen... 9 pertsona gara, kazetari, maketatzailer, diseinatzaile, publizista, administrari eta kudeatzaile. 21 banatzaile dabilta astero errotatibatik ekarritako astekariak herri guztietako bazkideen buzoietan baita toki publikoetan uzten.

Toki publikoetako banaketa aste honetan aldatuko da, bakar bakarrik toki jakin batzuetan utziko ditugu. Momentuz, Altsasuko Iortia kultur gunean, Arbizuko Lonbrendedan, Bakaikuko estankotan, Etxarri Aranatzeko Beleixe irradian, Lakuntzako Ogi Berri okindegian eta Irurtzongo, Lizarragako, Olatzagutiako, Uhar-te Arakilko, Urdiaingo eta Zor-diko udaletxeetan hartu daiteke astekaria ostiralero. Ordutegiak nahiko murrizak dira pairatzen ari garen egoera dela eta. Arau berrietara etengabe egokitzen gabiltzanez, suerta liteke hauekin ere aldaketak izatea, baina puntualki informatzen joango gaitzaizkizue. Aurreratu nahiko nuke ere hilabete gutxi barru, bazkide ez denak ez duela Guaixe asteburua pasa arte jaso ahalko. Astelehenean hainbat kontu zaharkiturik geratuko dira baina nahi izanez gero, berandu bada ere, eskura izango du. Bide batez, orain arte banaketa puntu izan diren arduradunei eskerrak eman nahiko nizkieke proiektuan sinistu eta berau aurrera eramaten ekarpena egin dutelako.

Eta galdetuko duzue, lantaldean hain pertsona gutxi eta hedabideetan hainbeste albiste, nola da posible? Zaintzei esker. Ekitaldi, gertakizun, ekimen, aldarrikapen, bitxikeriatan... aberatsa da Sakana eta horri ahotza eman ahal izateko kazetari sarea dugu beti laguntzeko prest. Kolaboratzaileen lan bikaina ere azpimarratu nahiko nuke, baita zuzentzaileena ere. Eta guzti honen atzean, Guaixe fundazioari babes eman, Patronatua.

Zer kostu du Sakanan zero kilometroko kazetaritza egitea urtero?

300.000 euro.

Horri nola ematen diozue buelta?

Bazkideen ezinbesteko laguntzari esker, jasotako ekarpenek %20 ko puska arintzen digutelako. Publizitateari esker, diru iturri garrantzitsua izan dena, azken hilabetetan bizitzen ari garen egoerak baldintzatuta, beherakada nabaria izan arren. Gogorra da ate joka joan eta negozioa itxiko duela entzutea. Errealita-



Goizeder Anton Iturralde, Guaixe fundazioko koordinatzailea.

te gordina. Eta, hala ere, jendeak gure erakusleioak aukeratzeko dituzte bere burua iragartzeko. Eta noski dirulaguntzei esker, Nafarroako Gobernuarenak, baita hasieratik gudan sinistu duen Sakanako Mankomunitateak emandako dirulaguntzei esker. Ikusten duzunez, 3 aldagai horiek desagertuko balira, proiektua kolokan legoke, edo ez legoke. Egoera ezegonkor hau ekiditeko autofinantzaketa litzake irtenbidea. Egoera ezegonkorra beste egoera ezegonkor handiago baten barnean, matrioxka baten antzera... Burujabetasuna lortu eta presioa arinduz epe luzerako

"ZERO KILOMETROKO KAZETARITZA TOKIKO HEDABIDEAK ESKAINTZEN DUGUN GUZTIA DA"

HERRI BAKOITZEAN TOKI PUBLIKO BAKAR BATEAN UTZIKO DA ASTEKARIA GAURTIK AURRERA

apustuak egiteko aukerak izango genituzke. Tokiko euskal kazetaritza, zintzoa, kalitatezkoa eta erreferentziala bermatzen jarraitu ahal izateko. Ametsak eta proiektuak betez, ditugunak, asko direlako!

Bazkide izanik, komunitatearen parte batek tokiko kazetaritzarekiko ardura duela erakusten du.

Erabat. Ardura, inplikazioa, maitasuna. Komunitate horrekiko harremana eta lotura estutu nahiko genuke, bazkideen iritzi, ekarpen eta kezak jasotzen ditugu baina gehiago nahi ditugu. Jakin badakit hala adierazi digutela, askok, lotsa dela, ez molestatzegatik, edo betidanik horrela izan delako, ez dira arazoren bat izan dutenean gurekin harremanetan jartzen, eta hau aldatu nahiko nuke. Bazkide batek hots egiten duenean arrazoia edozein dela, gozada bat da, ikasi eta irakasteko aukera duzula. Zerbait ez dabilenean ondo, zer den detektatu behar da konpondu al izateko. Adibide bat jartzearen: bi aste astekaria jaso gabe daraman bazkidea. Kontuari, duen garrantzia eman behar zaio. Bazkide den momentutik urtean argitaratzen diren

44 zenbaki horiek etxeko postontzian jasotzeko eskubidea du. Guri jakinarazita, ahalik eta azkarren gertatutakoa ikertu eta bazkide horri erantzun bat ematen zaio. Lehenik eta behin gure betebeharra delako, merezi duelako eta ekarpen ekonomikoa egiten ari delako. (Ez dakit lekua hau den baina testuingurua bai: gogorarazi nahiko nuke norberarena ez den postontzitik zerbait bereganatzea delatua dela, despistaturen bat balego jakinean egon dadin.) Tokiko kazetaritzara itzulita, duen garrantziaz jabetu behar gara. Gu gara gurea beste inor baino hobe landuko duguna. Hedabide handi askok, momentu jakin batzuetan eta garrantzizko gertakariak egon direnean, guregana jo dute eta jotzen dute. Berriak benetan alderatu eta konfirmatzen ditugu. Komunitatearen parte horrek erakusten duen ardurak besteak beste ematen digu aurrera egiteko indarra. Konpromiso bat dugu betetzera goaz.

Nahikoa bazkide dira?

Askok dira. Konparaziotik jotzen badugu eta izenik aipatuko ez dudana arren, hedabide ezagun bateko arduradunak behin aipa-

tu zidan Sakanako biztanleria kontuan izanda dugun bazkide kopurua oso pozik egotekoa dela. Eta hala da, bai, baina zorixarrez, ez da nahikoa. Ez da nahikoa lehen aipatu dudana. Ahal dugun guztia eta gehiago egin eta ematen dugun arren, proiektu, erreportaje, elkarrizketa eta gai asko landu gabe gelditzen dira ditugun baliabide eskasek muga asko jartzen dizkigutela. Bazkide kopurua handituko bultzatzen bestelako aukerak zabalduko litzazkiguke. Egun bizi dugun egoera errazena ez dela badakit. Norbanako ekonomiaren kudeaketaren hautua guztiz pertsonala dela badakit eta norberak daki ondoen dituen aukerak zeintzuk diren baina gurea eta hemengo den proiektu honi esker eskaintzen duguna denondako onuragarria izanda, gustatuko litzaidake bazkideen familia handitzea. Azken bazkide kanpaina egin zenetik urte batzuk pasa dira, eta gaztetxoak ez dira horren gazte hauek ere erakarri nahiko genituzke, haien ideiak eta ikusmoldeak ezagutu jaso eta kontatu... Etorkizuna baitira! Erdaldunak ere hor daude euskarazko testuak (oraingoz) irakurtzeko

Bazkide egiteko bideak

948 564 275

- **Lan orduetan deituta**, datuak ematea besterik ez da .
- **Lan orduetatik kanpo deituta**, erantzungailuan izena eta kontaktua utzita, harremanetan jarriko gara.

admin@guaixe.eus

- **Mezua idatzi** bazkide izan nahi duzula esanez eta harremanetan jarriko gara.

guaixe.eus/bazkidetu/

- **Webgunean sartu** eta dagoen formularioa bete. Eta zurekin harremanetan jarriko gara.

WhatsApp eta Telegram

- **618 882 675** telefono zenbakira mezua bidali eta harremanetan jarriko gara.

Aurrez aurre

- **Bulegotik pasa** eta datuak eman. Altsasuko Foru plazako 23. zenbakian, 1. pisuan gaude. Zuek eta guk segurtasun neurriak bete beharko ditugu.
- **Gutakoren bati** esan eta bazkidetza eskaera bideratuko dugu.
- **Bazkidetza oparitu** nahi badiozu bakarren bati, hori ere moldatuko dugu.

gai ez izan arren, irudiez eta beste hainbat edukiz gozatzen dutenak. Eta euskaraz egiten jarraituko dugun arren, beraien ekarpenak egin ditzaten gonbidatzen ditut.

Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten, ezta?

Globalizazioaren garaian, tokikoaren aldarrikapena, euskaraz.

Lehen esan bezala eta errepikatzeaz nekatu gabe: lehendabizikoaren aurka, bigarrena eta hirugarrena direla ditugun borrokarako tresnarik onenak. Sakanan, zuekin eta zuentzat, euskaraz.

*Eskerrik asko, orain arte, G puntuak izan zareten guztiei!
Eta izango zaretenei!*



GUAIXE ASTEKARIA

Bazkide ez zarenez ez duzu ostiralero astekaria postontzian edo e-posta bidez jasoko. Momentuz, Sakanako G puntuetara hurbildu beharko duzu honen bila



ZERBITZUAK

Bazkide ez bazara, GK diseinu eta komunikazio zerbitzuan, edozein lan egitean egiten dugun **deskontua** galduko duzu



ABANTAILAK

Bazkide ez zarenez, ditugun **deskontu eta abantailak galduko dituzu**. Baita sari interesgarriak irabazteko aukera ere



Bazkidetu orain
eta jaso
oparitxo bat!

Eskaintza honek stocka bukatu arte iraungo du

Etxean jasotzearen erosotasuna proba ezazu, bazkidetu zaitez!

GUAIXE ASTEKARIA

Sakanako informazio guztia, euskaraz. Bazkideek ostiralero **astekaria** postontzietan eta e-postan jasotzen dute



BELEIXE IRRATIA

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara **Egun on Sakana saioa**. Guaixe.eus-en online entzungai. Sakanako informazioa euskaraz



GUAIXE SAREAN

Sakanako informazio eguneratua euskaraz eta 24 orduz egunean, **guaixe.eus** webgunean eta Guaixeren sare sozialetan



ZERBITZUAK

Sakanako gida komertziala, paperezkoa eskualdeko postontzi guztietara banatzen da eta **online** bertsioa, laster berrikuntzekin! **GK** diseinu eta komunikazio zerbitzua behar duzun edozein lan egiteko prest!



ABANTAILAK

Bazkide izateagatik **hainbat deskontu eta abantaila** eskaintzen ditugu. Egiten diren bazkide zozketetan ere **sari interesgarriak** izaten dira



"Memoria gorde nahi duen liburu bat"

Garai baten isla. Orduan bizi zutenendako eta belaunaldi berriak gertatutakoa ezagutzeko bitartekoa izan nahi du Mikel Arregi Marini buruz argitaratutako liburuak. Lakuntzaz aparte, Etxarri Aranatz eta Altsasun eskuratzeko aukera dago

LAKUNTZA

Lakuntzako kultur etxea beteta zegoela, Mikel Arregi Marini buruzko liburua aurkeztu zen igandean. Mikel Arregi gogoan herri ekimenak lakuntzarraren heriotzaren inguruan zegoen materiala jaso, sailkatu eta txukun argitaratzeko ideia gauzatu ikusi du horrela. Material horri guztiari forma emateko urte bete lanean eman du herri ekimenak. Emaizta 15 eurotan eskuratu daiteke Lakuntzako dendetan eta Etxarri Aranatzko eta Altsasuko zenbait tokitan.

Herri Ekimeneko Jone Aretak azaldu zuenez, lakuntzarrek egin dute liburua, "apaltasunez eta maitasunez egin, gure historia bildu eta hurrengo belaunaldiei begira jasoa geratu dadin". Txaro Arregik, senitartekoen enizean, Mikel Arregi gogoan herri ekimenak egindako lana bihotzez eskertu zuen eta urte luze hautan familiak herritarren, udalaren eta hamaika taldeen aldetik jasotako babesa eskertu zuen.

Liburuaz

Iker Uribe arduratu da liburuari itxura emateaz eta "irudiari pisu handia" eman diola azaldu du, "argazki asko daude. Gertatutako guztia ulertzeko eta ikusiteko modu zuzenena dela irudi-



Liburuaren aurkezpenak jende ugari erakarri zuen.

tzen zaigu". Argazki gehienak familiarenak dira. Liburuko testuak, berriz, "kontakizunen bilduma bat da. Kontakizun horretan pisu handia dauka familiak, Mikelen lagunek eta abarrek".

Jakina, Mikelen biografia ere badu liburuak. Urubek azaldu duenez, "bere bizitzaren bidez uler daiteke garai haietan nola bizi ziren lakuntzarrak, jendea Euskal Herrian". Irudigileak gogorarazi zuen Mikel "herri mugimenduko oso parte aktiboa zen. Herriko gauza askotan par-

te hartzen zuen, bai udalean, baita kanpoan ere".

Garaiko dokumentazioa ere jasota dago liburuan: elkartzun mezuak edo Lakuntzako Udalak abian jarritako ikerketa batzordeak egindako ikerketa lana... "Azken hori oso garrantzitsua izan zen gertatutakoa argitzeko eta 1981ean epaiketa egiteko. Ez zen oso normala orduan halako epaiketak egitea" gaineratu zuen Urubek. Ondoren etorri zen Etxarri Aranatz oroigarria jartzea eta haren historia jasoa dago liburuan.

Bakaikun San Anton, baina ez da ohiko moduan ospatuko

Sanantondar bakaikuarrak bihar, 12:30ean, elizan dute hitzordua. San Anton patroia omentzeko eta azken urtean hildako kofrade edo anaien alde otoitz egiteko meza izanen da. Elizkizunaren ondoren, urteko jarduna jasotzen duen akta irakurriko dute Mario Gastaminza maiordomoak eta Eduardo Urrestarazu beleroak. Irakurketa despeditutakoan ko-

fradeen talde argazkia eginen da eta horrela despedituko dira aurtengo sanantondarren ospakizunak, senidetze bazkaririk ez baita izanen elkartean.

COVID-19 gaitzak eraginda, ospakizuna hala egitea erabaki zuten kofradiako anaiek hilaren 2an. Bilkura berean erabaki zen, aurtengo kofradeei kuotarik ez kobratzea. Eta, azkenik, salbuespen moduan Gastaminza eta Urrestarazu kofradiako maiordomo eta belero ardurekin segitea beste urte batez.

Biak Bat elkarte Forbes zerrendan agertu da

Forbesek estreinako Espainiako Beste 100 Aberastasun Nagusien zerrenda egin du. Han ez dira nabarmentzen dirutza pilotzen dutenak, baizik eta "beste pertsona batzuen bizitza hobetzea pentsatu eta jardutea erabaki zuten pertsonak, jende asko zorioneko sentitzea eragin dutenak". Aitor tza jaso dutenen artean Biak Bat elkarte altsasuarra dago.

1.167 koronabirus kasuarekin itxi zen 2020 urtea

Osasunbideak haren aurreneko kasuak Sakanan martxoaren 9an atzeman zituen, Etxarri Aranatz eta Altsasun. Ondoren pixkanaka-pixkanaka ibarrean han eta hemen kasuak pilatu ziren. Osasunbideak PCR bidez baieztatutako 1.167 kasu zenbatu zituen Sakanan joan den urtean. Ibarreko populazioaren %5,76k kutsatu da. Herrietako datuei

erreparatuta Urdiain nabarmentzen da, urdiaindarren %9,98k gaixotu baita. Irurtzunen kasuan herritarren %8,06 izan dira. Eta zerrenda horrela osatzen da: Etxarri Aranatz %6,29, Altsasu %6,05, Arbizu %6,04, Irañeta %5,33, Ziordia %4,86, Arruazu %4,72, Arakil %4,37, Uharteko %4,18, Iturmendi %4,14, Olaztagutia %3,83, Lakuntza %3,69, Ergoiena %2,97 eta Bakaiku %1,67. Aurtengo Sakanan PCR-arekin baieztatutako 56 kasu daude, herenegun arte.

Sakanako COVID-19 kasuak*

Udalerrria Herria	Kasuak 2020an	Populazioaren %	Kasuak 2021ean**	Guztira
Irurtzun	181	8,06	6	187
Arakil	42	4,37	0	42
Aizkorbe	0		0	0
Urritzola	0		0	0
Errotz	0		0	0
Izurdiaga	4		0	4
Etxeberri	6		0	6
Egiarreta	6		0	6
Etxarren	5		0	5
Ekai	2		0	2
Zuhatzu	2		0	2
Satrustegi	1		0	1
Hiriberri Arakil	7		0	7
Ihabar	9		0	9
Irañeta	9	5,33	0	9
Uharteko A.	33	4,18	0	33
Arruazu	5	4,72	0	5
Lakuntza	47	3,69	4	51
Arbizu	67	6,04	1	68
Ergoiena	11	2,97	0	11
Unanu	1		0	1
Dorrao	3		0	3
Lizarraga	7		0	7
Etxarri A.	157	6,29	6	163
Etxarri Aranatz	154		6	160
Lizarragabengoa	3		0	3
Bakaiku	6	1,67	0	6
Iturmendi	17	4,14	15	32
Urdiain	66	9,98	5	71
Altsasu	452	6,05	15	467
Olazti	57	3,83	4	61
Ziordia	17	4,86	0	17
Guztira:	1.167	5,76	56	1.223

*PCR PROBAREKIN BAIESTATUTAKO KASUAK 2020KO ABENDUAREN 31RA ARTE.
**ASTEAZKENERA ARTEKO KASUAK.

ITURRIA: OSASUNBIDEA



Irurtzunen Aizpea euskara taldeak Familia Mintzakide irteerak antolatu zituenerako. ARTXIBOA

Naturak eskaintzen digunaz gozatzeko gonbita

"Naturanitzean Gozaten" ekimena antolatu dute Mank-eko Kirol Zerbitzuak eta Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak. 8 irteera prestatu dituzte gure paraje eta txokoak ezagutzeko. Izena ematea garaiz egitea gomendatu dute

Maidor Betelu / Eneida Carreño
SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak "Naturanitzean Gozaten" programa antolatu dute elkarlanean, natura ezagutu, kirol praktika berriak sustatu eta lagun berriak egiteko. Ilbeltzaren 24tik ekainaren 27ra bitartean Sakanako txoko eta mendi ederretan barna gauzatuko diren 8 irteera edo ekimen antolatu dira, batzuk bakarrik eta beste batzuk familiar egiteko aproposak direnak.

Programari jarri dioten izenak lortu nahi dutena ongi laburbiltzen du. "Azken urte honetan bizi dugun egoera zail honi erantzuna eman nahian, pentsatu genuen naturan ekimenak antolatzea egokia dela, bide batez hainbat helburu uztartuz. Sakanan natura anitza da, orduan naturak eskaintzen digunaz goza dezagun. Aldi berean, kirola egingo dugu, osasuntsua dena. Kirola ere anitza denez, kirol

ezberdinak egiteko proposamena egin dugu. Eta, bukatzeko, jende anitzen artean egingo dugu. Elkar ezagutzen ez dugun pertsonak goiza elkarrekin pasako dugu, modu baikorrean, egunaz gozatu. Hori da helburua, aniztasun hori guztia uztartzea" azaldu du Mank-eko Kulturartekotasun teknikari Bego Zestauk.

Sakanako txoko ezberdinetan

Hilero txango bat antolatu da, martxoan eta ekainean izan ezik, bi hilabete hauetan bina txango egongo baitira. Igandean izanen da lehena, Uhartea Arakilen hasi eta Arakilen barna egingen den ipar martxa. "Ekimen bakoitza toki ezberdinean egin nahi genuen, Sakanako txoko ezberdinak ezagutzeko. Otsaileko ipar martxa Ergoienan barna egingo dugu eta martxoan, Emakumearen Egunari keinua egiteko, partaideek morea den zerbait ekarri beharko dute eta Martxa Morea egingo dugu Batueko eta Belengo iturrietan" azaldu du Zestauk.

Familia artean egiteko bi txango antolatu dira, hiruzpalau orduko iraupena izango dutenak, martxoaren 28an Aralarren bata, trikuharriak eta euskal mitologia ezagutzeko, eta apirilaren 25ean Allin edo Saraben, artzainen bizimodua ezagutzeko. Horretaz gain, maiatzaren 6an mendian ibiltzera ohituta daudenei zuzendutako orientazio proba antolatu dute Urbasan, mapen eta iparrorratzen erabilerak ikasteko, eta ekainaren 6an naturaren hizkuntza ikusi eta ezagutzeko saioa izango da txikiendako eta hauen gurasoendako. "Oinutsik izanen da, Sakanako hariztian, naturak zer esaten digun entzun, jabetu eta sentitzeko" dio Zestauk. "Ziklo

"SAKANAN NATURA ANITZA DA; NATURAK ESKAINTZEN DIGUNAZ GOZA DEZAGUN" BEGO ZESTAU

hau bukatuko litzateke ekainaren azken asteburuan mendira lo egitera joanez" gaineratu du teknikariak.

Izena ematea garaiz egiteko eskaria

Antolatutako 8 ekimen hauetako batean izena ematea zabalik dago, Mank-eko Kirol edo Anitzartean Kulturartekotasun zerbitzuetan. Leku mugatuak daudenez –gutxienez 6 eta gehienez 12– izena ematea lehenbailehen egiteko gomendioa egin du Mankomunitateak. Izena ematen dutenen ordenaren arabera onartuko dira partaideak. "Ederra litzateke txango bakoitzaren bi saio egin behar izatea, baina horretarako garaiz eman behar da izena" dio teknikariak.

Mank-ek antolatutako programazioa aniztasun funtzionala duten pertsoneri ere antolatutakoa da. "Norbaitek izena eman nahi badu, deitu dezala eta pertsona horrendako aukerarik egokiena aztertuko genuke" nabarmendu du Bego Zestauk. Jakina, osasun segurtasun neurri guztiak bermatuko dira.

Ekitaldi guztietan begirale profesionalak izango dira, partaide guztiendako aseguruak kontratatuko da, eta ipar martxa jardueretan makilak utziko zaizkie ez dituztenei; horregatik, ordaindutako ekimena da. "Ekitaldiak eskuragarriak izaten saiatu gara. Badaude adin tarte batzuk –12-25 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak– prezio merkeagoa izango dutena. Baita familiabakarreko gurasoen kasuan ere" azaldu du teknikariak.

Ilbeltzaren 31n elurretako erraketan oinarritako ikastaroa antolatu du Mank-ek

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Eduka Natura eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin Sakanako mendi elurtuetan ibiltzeko elur erraketan oinarritako ikastaroa antolatu du 12 urtetik gorakoendako. Lau orduko bi txanda izanen dira: 9:00-13:00 eta 14:00-18:00. Izena ematea zabalik dago, Kirol Zerbitzuan (15 euro, 15-25 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak 10 euro). Partaideei elur erraketak eta makilak utziko zaizkie. "Elurra zein egoeratan dagoen ikusi beharko da eta horren arabera aterako da ikastaroa. Izena ematen duenari garaiz esango zaio" aipatu du Zestauk.

"Naturanitzean Gozaten" programa

- **Ipar martxa Uhartea Arakildik barna (ilbeltzak 24, 10:00)** Ipar martxako teknikaren ikastaro laburra eta 3 orduko ibilbidea. 12 urtetik aurrera. Prezioa: 15 euro (12-25 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak 10).
- **Ipar martxa Ergoienan barna (otsailak 24, 10:00)** Ipar martxako teknikaren ikastaro laburra eta 3 orduko ibilbidea. Aurreko prezioa.
- **Martxa Morea Batueko eta Belengo iturrietatik (martxoak 14, 10:00)** Ipar martxako teknikaren ikastaro laburra eta 3 ordu. 12 urtetik aurrera. Aurreko prezioa.
- **Mendi ibilaldia familiar Aralarren, trikuharriak eta euskal mitologia ezagutzeko (martxoak 28, 10:00)** 3-4 ordu. Zailtasuna: erraza. Euskaraz. Prezioa: 10 euro (12-25 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak 5). Familiak 20 euro (guraso bakarreko familiar 15).
- **Mendi ibilaldia familiar artzainen bizimodua ezagutzeko (apirilak 25, 10:00)** Saraben edo Allin. 3-4 ordu. Zailtasuna: erraza. Euskaraz. Aurreko prezioa.
- **Orientazio ikastaroa Urbanan (maiatzak 16, 09:00)** Mendian ibiltzera ohituta daudenendako. 12 urtetik aurrera. 12 km. 4-5 ordu. Prezioa: 20 euro (12-25 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak 15).
- **Naturaren hizkuntza ikasi eta ezagutu (ekainak 6, 10:00)** Oinutsik, Sakanako hariztian. 8-12 urte artekoendako eta gurasoendako. Prezioa: 10 euro, familiar 20 euro.
- **Mendira lo egitera (ekainak 26-27)** Bizirapen tailerra. 16-18 urteko gazteak. Prezioa: 25 euro.

* **Izena ematea:** Mank-eko Kirol Zerbitzua (948 46 48 66, kirolak@sakana-mank.eus) edo Anitzartean Zerbitzua (648 07 07 10, anitzartean@sakana-mank.eus).



Iker Mintegi Claverrek makina bat ihesaldi egin ditu haurren, kadeteen eta jubenilen mailan. Orain afizionatuetan Laboral Kutxa debutatzeko irrikaz dago. UTZITAKOIA

"Afizionatuetan, jolasa zenak seriotasuna hartzen du"

IKER MINTEGI CLAVER TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Burunda klubean trebatu eta ibilbide ederra egin eta gero aurten afizionatuen mailan debutatuko du altsasuarrak, Laboral Kutxa taldean

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Afizionatuetara egin duzu salto. Atzera begira zure taldeari, Burundari, maitasun berezia izango diozu, ez? Oroitzapen asko izango dira. Bai, finean urte asko dira. Balorazioa ona da, gustura ibili naiz. Hasieran txirrindularitza jolasa zen, baina denborarekin serioago hartu eta mimo gehiagorekin prestatzen dituzu lasterketak. **Badakizu behe mailako kategorietan zenbat garaipen dituzun?** Ez diot aparteko garrantzirik ematen, baina zenbat diren ba-

dakit, gutxi izan zirelako. Haur mailan bi garaipen lortu nituen urte bakoitzean, kadeteetan bi ere urte bakoitzean eta jubeniletan ez nuen bakarka lasterketarik irabazi. Taldekako erlojupekoan bai, baina bakarka ez.

"EZ ZAIT TROPELEAN JOATEA GUSTATZEN, NAHIAGO DUT IHES EGINDA AURRETIK JOATEA"

Orain arte beti egon izan zara aurrean. Nafarroako selekzioan ez duzu hutsik egin, eta Espainiako Txapelketetan aritu izan zara. Horrek esan nahi du ibilbide bat egin eta maila bati eutsi diozula, erregularra izan zarela.

Garaipena lortzea zaila da; soilik batek lortzen du. Gakoa hor egotea da. Askotan hobeto baloratzen da, esaterako, ihesaldietan egotea edo lasterketa ona egitea irabaztea baino. Garaipena beste gauza bat da. Sarritan errendimendua eta emaitza ez dira berdina.

Nola definituko zenuke zure burua txirrindulari gisa?

Oraingoz nahiko ondo murgiltzen naiz alor guztietan, baina bereziki, ausarta naizela esango nuke: ez zait tropelean joatea gustatzen, nahiago dut ihes eginda aurretik joatea. Ihesaldi luzeak, helmugara iristen diren horiek, ongi daramatzat. Nire garaipen gehienak horrela etorri dira. Bestalde, daukadan gorpuzkeragatik, ariña bainaiz, goraka ere ondo noa eta erlojupekoak ere ongi egin izan ditut. Nire gorpuzkera, beste batzuekin alderatuta agian akatsa izango zena, orain arte hala denik ez dut nabaritu. Hau oraindik ikusteko dago, orain hasten baita serioa, benetakoa.

Jubenilen 2. eta azken urtea iaz egin zenuen. 2020 oso urte zaila izan zen, lasterketa gutxi izan zenuen. Zer balorazio egiten duzu?

Urte oso arraroa izan zen. Inoiz ez genuen arrabolean horrenbeste entrenatu, errepidera atara gabe. Mundu guztiari bezala, egoerara moldatzea egokitu zitzaigun. Konfinamenduaren aurretik bi lasterketa izan genituen, eta Villatuertan, 2. sartu nintzen. Konfinamendua eta gero, eroriko nahikotxo izan nituen: lehen lasterketatik hanka gaizki nuen, eta ondoren hiru eroriko izan nituen. Martxa hartzea kostatzen egin zitzaidan, baina bukaeran nahiko ongi ibili nintzen: azken lau lasterketan 4. postua izan zen egin nuen okerreana, eta errendimendurekin eta guztiarekin pozik geratu nintzen.

Txirrindulariendako urte berezia da jubenilen 2. urtea, hor erabakitzen delako ea afizionatuetara pasatzeko aukera duzuen edo bidean geratzen zareten. Zaila da afizionatuetan taldea lortzea?

Afizionatuetarako jauzia jauzi potoloa da, hor hasten da benetako historia. Entrenamenduak, nutrizioa eta kategoriak berarekin dakarren guztia zaintzen hasten zara. Txirrindulari guztiak horretan hasten direnez, maila nabarmen igotzen da. Taldea lortzeko garaian aurrean egon izanak laguntzen zaitu. Zortea izan dut, afizionatuetara pasatzeko aukera izan dudalako; egongo da saltoa ematea ez duena hain erraz izango. Uste dut ondoan dudan jendearengatik ere errazagoa izan dudala taldea aurkitzea.

Laboral Kutxa da zure talde berria. Eurekin modu ezberdinean hasi al zara entrenatzen?

Aurreko urtean, jubenilen 2. urtean nengoela, Euskadi Fundazioko Jorge Azanza zuzendariarekin hasi nintzen prestaketa lantzen, eta horrela segitzen dut. Nutrizionistarekin aurten hasi naiz.

Afizionatuen mailakoa aldaketa horren handia al da?

Oraindik ez dugu intentsitate gehiegi sartu, orain hasi gara, baina ordu gehiago sartu ditut. Abenduan udako edozein hila-betetan egiten ditudan entrenamendu ordu berdinak egin nituen. Izan ere, afizionatuena pausu handia da; orain arte jolasa zenak beste seriotasun bat hartzen du. Orain arte neguan ziklo-krosean aritzen nintzen denboraldia prestatzeko, baina aurten ez da probarik egon. Aurten, guztia ezberdina ari da izaten.

Aldi berean ikasten zaude. Nola daramazu?

Kiroletako Goi Maila ikasten dut Iruñean. Moldatzen naiz. Egunak aurrera pasa geroz eta hobeto ibiliko naiz, argi ordu gehiago izango ditugulako. Neguan, Iruñetik bueltan kotxean bertan bazkaltzen nuen, heldu bezain pronto entrenatu ahal izateko, beste la azkar iluntzen baita.

Zenbat ordu entrenatzen dituzu egunean?

Astean egun bat atsedean hartzen dut. Gainontzekoetan, egun batzuetan gimnasioa eta bizikleta lantzen ditut, eta beste batzuetan soilik bizikleta. Bizikleta gainean zenbat ordu? Ba 2 ordutatik lau ordu pasara, egunaren arabera.

Afizionatuen mailatik zerk ematen dizu errespeturik gehien?

Dena berria izango da, kategorია bera eta lasterketan korritzeko modua ere. Talde indartsu batean nagoenez, zeregin konkretua izango dut talde barruan. Gogoratzten dut kadeteetan askotan Unai Aznar eta biok ginela Burundako bakarrak zenbait lasterketan. Orain 17 gaude. Guztia desberdina izango da, baina nik uste ongi moldatuko naizela. Esperientzia bizitzeko gogoz nago, hasteko irrikaz.

Ailetz Lasa ziordiarra duzu taldekide Laboral Kutxan.

Bai, ia egunero batera entrenatzen dugu, eta zalantzak berari galdetzen dizkiot. Gustura gabiltza. **Igor Arrieta laguna duzu eta, aldi berean, arerio izan duzu beti, lehen Sakana Group Aralarren eta aurten Lizarten.**

Bai. Igor Arrietaz aparte, Aitor Alberdik eta Mikel Olaetxeak Rural Kutxa-Seguros RGA taldekoko afizionatuen taldera egin dute salto eta Unai Aznar nire taldekide zena Lizarten ariko da, Igorrekin. Aurretik zeudenekin batera, Sakanako txirrindulari talde polita egongo gara aurten

afizionatuetan aspaldiko partez, eta orain artekoa ikusita, maila ere altua izango dela uste dut.

Orain arte zure belaunaldiko txirrindulari sakandarrak, Burunda eta Aralar taldekoak, ikusgarri aritu izan zarete. Beheko kategorietan zuen falta sumatuko da.

Guztion artean nahiko ongi ibili izan gara, bai. Askotan esaten da bat ondo badabil, besteek parean egon nahi dutela, eta horrek ere maila igotzea ekartzen du. Amateur mailan orain nola ibiliko garen ikusteko dago, baina uste dut ongi ariko garela.

Denboraldi berria noiz eta non hasiko duzue?

Oraindik guztia airean dago. Egunotan profesional mailako lasterketa batzuk bertan behe-uzten hasi dira, afizionatuen Nafarroako Itzulia bertan behe-geratu da... Pandemia dela eta, guztia atzeratzen ari da.

Denboraldi duin bat egiteko aukera izango duzuela pentsatu nahiko genuke.

Ahalik eta lasterketa gehien egin ahal izatea espero dugu, baina ezin gara horrekin itsutu.

Lasterketa gutxiago egon direnez, dauden gutxi horietan txirrindula-

riek gehiegi arriskutzen ote duten aipatu izan da, batez ere profesionaletara salto egin nahi dutenen kasuan. Uste duzu hala izango dela?

Iaz lasterketa oso gutxi jokatu ziren eta hori nabaritu zen. Gu aurten lehenengo urteko afizionatuak gara, baina 3. edo 4. urteko txirrindulari batek profesionaletara pasatzeko prest dagoela erakutsi beharra du, bestela afizionatuen elite mailara pasako da eta hor ez daude horrenbeste lasterketa ez aukera. Zaila izanen dela uste dut.

Txirrindulariak etengabeko tentsioan bizi zarete.

Bai, baina egoera ahalik eta hobekien eta lasaien eramaten jakin behar da. Orain gutxika joan, kategoría berrira egokitu, entrenatzen hasi, zurea egin eta zurea erakusten joan. Hori da gure egin beharrekoa. Talde barruan eroso sentitzea, eta taldeak eskatzen didana egin ahal izatea, horiek dira beste helburuak. Gurea ez da beste kirol batean bezala, nahi duzunean izena ematen duzula eta listo. Hemen maila bat eman beharko duzu eta jarraikortasun edo konstantzia hori izan beharko duzu.

Sakanako



puntuak



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

LAKUNTZA
OGIBERRI OKINDEGIA

LIZARRAGA
UDALETXEA

OLAZTI
UDALETXEA

UHARTE
ARAKIL
UDALETXEA

URDIAIN
UDALETXEA

ZIORDIA
UDALETXEA

ALTSASU
IORTIA KULTUR GUNEA

ARBIZU
LONBRENDENDA

BAKAIKU
ESTANKOA

ETXARRI
ARANATZ
BELEIXE IRRATIA

IRURTZUN
UDALETXEA

Josu Etxeberriaren Rural Kutxa profesionala, aurkeztuta

Josu Etxeberria Azpilikueta iturmendiarrak profesionalean debutatuko du aurten UCI Pro Team mailako Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin. Taldeak asteartean egin zuen aurkezpena, Altean, bertan egon baita kontzentratuta. "Aurreko urteko blokearen alde eta afizionatuen mailatik igo diren eta talentutzat jotzen ditugun hiru txirrindularien aldeko apustua egin dugu" azaldu zuen Xabier Muriel zuzendariak. Talentu horietako bat Josu Etxeberria da, Jokin Murgialdairekin batera Rural Kutxa afizionatuen taldetik talde profesionalera igo dena. Hirugarrena Cafes Baque taldetik igo den Jon Barrenexea da.

Taldeko 20 txirrindularietatik 13 Rural Kutxa talde afizionatu sakandarretik pasa dira. Juan Manuel Hernandez Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko managerrak nabarmendu zuenez, "horrenbeste urtetan harrobiarekin lan egitea harro egotekoa da, eta bide beretik jarraituko dugu; hori da gure



Josu Etxeberria, erdian, taldearen maillot berria aurkezten. RURAL KUTXA

filosofia". Halaber, Xabier Muriel zuzendariak nabarmendu zuen "aurreko urteko bide on beretik jarraitu" nahi dutela eta egutegia zabaldu nahi dutela, "txirrindulari guztiek euren aukerak izan ditzaten".

Josu Etxeberria oso pozik dago profesionalean ariko delako. "Eskoletan entrenatzen nuenetik bilatzen nuen ametsa da. Profesional erregularra eta sendoa izatea espero dut. Mundu guztiak ez du aukera hau eta aprobetxatzea espero dut" dio.

Astana, Kern Pharma eta Movistar Team taldeek ere aurkezpena egin dute
Gorka Izagirreraren Astana taldeak igandean egin zuen 2021 denboraldiko aurkezpena, Benidormen. Asteazkenean Pablo Urtausun urdiaindarra zuzendari duen Kern Pharma UCI Pro Team taldeak ere denboraldi berria aurkeztu zuen La Vila Joiosan, eta atzo, ostegun gauean, Imanol Erbiti eta Jose Luis Arrietaren Movistar Team aurkeztu zen.

Egin zaituzte bazkide!
Eta etxean jasoko duzu!



948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus



guaixe
fundazioa

Zabaleta, protagonista eta liluratzen duen liderra

PILOTA Atzelari etxarrendarra egungo atzelari onena dela eta Binakako Txapelketan ikusgarri dabilela ez du inork zalantzan jartzen. Martijak eskuko mina du eta Bikuñak hartuko du bere lekua eta Ezkurdiak txapelketako lehen puntua lortu nahi du

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkako 4. jardunaldia jokatu da asteburuan, eta egoera oso desberdinean daude gure pilotariak: Zabaleta gorenean, Ezkurdia sailkapeneko azken tokian eta Martija eskuko minez.

Zabaletaren hamarra

Jose Javier Zabaleta txapelketako liderra da Danel Elezkanoren batera. Sendotasun ikaragarria erakutsi dute jokatuako hiru partidetan. Zabaletaz zer esan; Etxarrenda denak dira hitz ederrak. Izan ere, ikusgarri dabil, astero bere bertsiorik onena erakusten. Atzeko koadroetan nagusi, sekulako jotzea du, kantxa asko estaltzen du eta egungo atzelaririk onena dela argi dago. Astelehenean Altuna eta Mariezkurrena izan zituzten aurkari, eta nahiz eta Berriozarko atzelaria oso ongi aritu, etxarrendarra gailendu zitzaion partida gogorrean. 729 pilotakada jo ziren guztira eta 200dik gora Zabaletak jo zituen. Liluratuta utzi zituen zaleak. Partida bukaeran, asko disfrutatu zuela aitortu zuen Zabaleta, eta arraroa da, normalean etxarrendarra ez baita bere buruarekin konforme egoten. "Gutxitan izaten dira halako partidak, horrenbeste disfrutatzeak, eta egia esan egindako partidarekin oso pozik nago eta lortutako puntuarekin oso pozik baita ere". Astelehenean liderrek Artola ordezkatu duen Bengoetxea VI.a eta Aranguren izango dituzte aurkari Gernikan (22:30, ETB1).

Ezkurdia lehen puntua lortu nahian

Zoritxarrez, beste aldean dago Joseba Ezkurdia. Arbizuarrak eta Ladis Galarzak jokatuako 3 jardunaldiak galdu egin dituzte eta sailkapenean azkenak dira. Nolanahi ere, igandean hobe



Zalantzarik gabe, une honetan Jose Javier Zabaleta da txapelketako izarra. ASPE

GUREAK BINAKAKOAN: ZABALETA GORENEAN, EZKURDIA SAILKAPENA IXTEN ETA MARTIJA BAJAN

aritu zen bikoa eta Jakari eta Martijari irabaztear egon ziren. 21era berdintzea lortu zuten Ezkurdiak eta Ladisek, partida gogorrean. Azken tantoa Jakaren eta Martijaren aldera erori zen, baina Ezkurdiarendako eta Ladis Galarzarendako esperantza badago, aurreko bi jardunaldietan baino askoz hobe aritu baitziren. Larunbatean konfinatuta dagoen Peña II.aren tokia hartuko duen Zubizarreta III.a eta Albisu izanen dituzte aurkari, Tolosan (17:15, ETB1). Asteazkenean egin zuten material aukeraketa eta materialarekin pozik azaldu ziren lau pilotariak. Arbizuko aurrelariak azaldu zuenez "lan egiten jarraitu beharra dugu, eta azkenean emaitzak iritsiko dira". Halaber, tanto guztietan lan egin beharko dutela gaineratu zuen, "eta batez ere gure erritmoa ezarri".

Martijaren eskua minduta

Julen Martijak ez du aste honetan jokatu, eskuineko eskua minduta duelako. Bere tokia Bikuñak hartuko du. Esan bezala, Jakak eta Martijak ederki sufritu eta gero lortu zuten txapelketako euren lehendabiziko puntua, Ezkurdiari eta Ladis Galarzari 22 eta 21 irabazi eta gero, eta badirudi Martijaren eskuak ez zuela behar bezala eutsi. Etxeberriko atzelariak nahiago izan du mindutako eskuari egun batzuetan atsedena ematea. Horrela, ostiralean Jakak eta Martija ordezkatu duen Bikuñak Urrutikoetxea eta Imaz izanen dituzte aurkari Zumaian (22:15, ETB1).

Binakako 4. jardunaldiko igandeko partidari, Olaizola II.ak eta Rezustak Altuna III.a eta Mariezkurrena izanen dituzte aurkari igandean Bilbon (17:00, ETB1).

Txapelketako sailkapenean, Elezkan-Zabaletak eta Olaizola-Rezustak hiruna puntu dituzte, Altuna-Mariezkurrenak eta Peña II-Albisuk bina puntu, Jaka-Martijak eta Urrutikoetxea-Imazek puntu bana, eta Artola-Aranguren eta Ezkurdia-Ladis Galarzak ez dute punturik.



LOINTEK GERNIKA

Naiara Diezen Gernika Eurokopan

SASKIBALOI Naiara Diez altsasuarra kapitain duen Lointek Gernika taldea Eurokopako taldekako lehen fasea jokatzeko ari da egunotan Valentzian. F multzoan dago Gernika. Asteartean La Roche talde frantziarrari 82 eta 67 irabazi zion, bart Carolo izan zuen aurkari eta gaur Teneriferen kontra ariko da. Bi talde onenek egingo dute aurrera.

Martil eta Llamas onenen artean

ARETO FUTBOLA

Areto Futboleko Liga Nazionalak 17. jardunaldiko boskotarik onena aukeratu du, eta Osasuna Magnako Roberto Martil irurtzundarra atzelari onena izan zela erabaki du. Halaber, Asier Llamas irurtzundarrak jardunaldiko 2. geldialdi onena egin zuela zehaztu du. Gaur, ostirala, Osasuna Magnak ligan 2. den Levante hartuko du Anaitasunan (20:00).



XOTA



ALEX TXIKON

Altsasuar bat Txikonen espedizioan

MENDIA Alex Txikon Himalayara itzuli da berriz. Simone Moro, Iñaki Alvarez eta bi sherpekin batera neguan Manaslu (8.163 m) igo nahi du mendizale bizkaitarrak. Bere espedizioan altsasuar bat dago, Aitor Sanz. Sanz Kanpaleku Nagusian ari da lanean. Egun, espedizio guztia Kanpaleku Nagusian dago, eguraldiak utzi bezain pronto bigarren errotazioari ekiteko prest.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 22

LAKUNTZA Sofokaos eta Tatzers taldeen kontzertua.

Kontzertuen artean zozketa eginen da. Sarrerak: 3 euro.
lakuntzakogazteasanblada@gmail.com helbidean.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU

Gazte agenda: Kremak.

17:00etatik aurrera, Intxostiapuntan.

BAKAIKU Eskolen eraikinen

inguruko proiektuak garatzeko bilera.

18:30ean, udaletxeko goiko areto handia.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzeak.

20:00etan, plazan.

LARUNBATA 23

ALTSASU Ospa! Mugimenduaren batzarra.

10:30ean, Gure Etxea eraikinean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Perfumes gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 22: 19:00
Igandea 24: 19:30

Ipuin herriko berriak familiarateko filmaren emanaldia euskaraz

Igandea 24: 17:00

Manual de la buena esposa gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 28: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Martin Eden zineforum filmaren emanaldia

Igandea 24: 19:30

Deseando amar zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 28: 19:00

ARBIZU Leziza errekarri buruzko herri batzarra Arbizuko Udalak deituta.

12:30ean, udaletxeko areto nagusian.



ALTSASU Gazte agenda: Atzapar Rock taldearen kontzertua.

17:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

OLAZTI Toni Bright magoaren Volver a creer. Magia de la mente ikuskizuna.

Sarrerak: 6/8 euro.
19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 24

UHARTE ARAKIL Naturanitzean gozatzen programa. Ipar



PEOPLE ART FACTORY

ALTSASU Emakume malgaxearen indarra erakusketa birtuala. Abenduaren 29tik martxoaren 29ra. People art factory webgunean, <https://labur.eus/EmaMalgaxe>.



ALTSASU #AltsasukoakAske Guztien artean egin dugu! Testigantza erakusketa. Urtarrilaren 19tik otsailaren 7ra. Asteleheneetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi aurretik eta igandetan 16:00etatik 20:30era. Iortia kultur gunean.

Martxaren teknikaren ikastaro labor bat euskaraz.

3 orduko ibilbidea. 12 urtetik aurrera. 10/15 euro.
10:00etan, plazan.

ALTSASU Pequeño Big Blue familiarateko ikuskizuna.

12:00etan eta 13:15ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 25

ALTSASU Pentsio duinen aldeko

kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEARTEA 26

ALTSASU Hitzaldia eta emanaldia: Federico Garcia Lorca bizitza laburra.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 27

ALTSASU Joseba Eceolazaren Tras la pista de Federico Garcia Lorca liburuaren aurkezpena.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

Bazkide
Zozketa

1. SARIA

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

GAZTEZULO: 3 hilabetez doan

2. eta 3. SARIAK

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea



Ekain berri



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com · www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



OROIGARRIA

Txomin Leñena Isasti

Txomin panadero
IV. urteurrena

Erreza izan zen zu maitatzea,
Ezinezkoa ordea zu ahaztea,
Beti gure bihotzetan,
Maite zaitugu.

Etxekuek
Pasaia-Urdiain, 2021eko urtarrilaren 8an

ESKELA

Niko Fuentes Moreno

Pazientziaz ta su geldian
Egositako bizitza,
Haritz nobleen upel artean
Goxatu zenuen hitza,
Joan ez bazina bezala Niko
Nabari deu zure oroitza
Ardo onduen usain ederra
Gure artean bailitza.

Zure kintoak
Altsasu

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaxe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Bi garaje plaza salgai
Etxarri Aranatz, oso
prezio onan. Deitu 661
186 576

IKASTAROAK

Arakilgo ikastaro eskaintza: Yoga Ihabarren (astelehenetan eta ostegunetan 18:30-20:00), Soinketa Hiriberrin (asteartetan eta ostegunetan 18:00 – 19:00), Eskulanak (Astelehenetan 10:30-12:30), Astelehen zoriontsuak, arratsaldeak. Otsailaren 1ean hasiko dira. Irizpideak (www.arakil.net weborrian) eta segurtasun protokoloa onartzea derrigorrezkoa izanen da. Izen ematea urtarrilaren 26an baino lehen Udale-

txean (948 500 101) edo
WhatsApeez (634 584
226).

LEHIAKETA

Liberoamerika argitaletxearen literatur lehiaketa: Idalze gazteen lanak argitaratzeko xedearekin sortu dute deialdia. 30 urtetik beherako pertsonen parte har dezakete, edozein delarik haien nazionalitatea, jatorria edo bizilekua. Lanek gutxienez 40 eta gehienez 80 orrialde izango dute, eta Times New Roman 12 letra motan tarte bikoitzean idatzita egongo dira. Informazio osoa <https://liberoamerica.com/idazle-gazteen-literatur-lanak-argitaratzeko-deialdia/> web orrian.

OHARRAK

Etxarri Aranazko abesbatzaren egutegia salgai: 1942tik 2020ra korralaren ibilbidea erakusten duten 60 argazki dituen 10 euroren truke Kaxeta, Sabando, Urgain, Goikoe-txea belar denda eta Ilaia ileapaindegian. Ekarpentxi bat korralaren jarduerari laguntzeko.

Intxostiapuntako ordutegiak: Gaztegunea astelehenetik ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik – 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio guinea astelehenetik ostiralera 07:30tik 15:00etara eta asteazkenetan 07:30tik – 12:00etara eta 17:00etatik – 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, intxostiapunta@altsasu.net + gazteria@altsasu.net.

iragarki@guaxe.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaxe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

JAIOTZAK

- **Oinatz Marin Ansorena**, ilbeltzaren 12an Dorraon
- **Amets eta Xabat Ganboa Uharte**, ilbeltzaren 13an Uharte Arakilen
- **June Aizpun Bermejo**, ilbeltzaren 14an Arruazun
- **Adur Aralar Olza Coroso**, ilbeltzaren 14an Altsasun
- **Alain Goikoetxea Olmedillo**, ilbeltzaren 15ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75
iragarki@guaxe.eus
www.guaxe.eus/iragarkiak



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Gruporache
Gruporache
www.tanatoriosirache.es

Zer da artea?

Uholdeak programaren barruan Sakanako bederatzi artista artearen inguruan hausnartzeko elkartu dira. Besteak beste, arteak espazioan duen garrantzia edo herrietan arte garaikidea zabaltzeko proposamenei buruz eztabaidatu dute

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Duela hamabi urte Txuspo Poyo artista altsasuarrak egindako zuhaitz etxea jarri zuten Dantzalekun. Hala ere, hori ez litzateke bere tokia izan beharko; egurrezko etxea Iortia kultur gunearen inguruetan egotea planteatu zuen artistak. Txuspo Poyoren artelanak oso argi azaltzen du Kanpoko bulego kolektiboak *Uholdeak: Klaustrofilia* programarekin planteatzen zuena. Etxola bat berez nahiko "klaustrofilikoa" delako eta arte garaikidea ongi azaltzen duela, Marc kolektiboko kidearen esanetan: "Hasieran leku batean egon behar zuen, gero beste batera eraman zuten...". Horren atzean zegoena interesatzen zitzaion artistei, eta ideia horri buruz eztabaidatu zuten aurreko larunbatean Sakanako bederatzi artistek.

Uholdeak. Klaustrofilia programaren barruan, beraz, Anne eta Marc Kanpoko bulegoko kideek ibarreko artistak elkartu eta arte garaikideari buruz hitz egitea proposatu zuten. Bederatzi artista bildu ziren: Rosa Arnanz, Maruxa Barandiaran, Bea de la Vega, Maite de Miguel, Maru Garcia, Jule Kosta, Sagri Mauleon, Helena Santano eta Manolita Thunders. Solasaldia "oso aberasgarria" eta "interesgarria" izan zela aipatu dute Jule Kosta eta Sagri Mauleon artistek.

Arte espazioak

Dantzalekuko zuhaitz etxea izan zen solasaldiaren oinarria: "Artelan bat dagoen lekuaren arabera jendeak modu batera edo bestera bizitzen du", azaldu du Jule Kostak. "Etxe hori modu batera planteatu zen, herriaren erdian jartzeko, eta beste toki batean jarri zen. Beraz, artelanaren beraren bila-kaeraz eta bizitzaz hitz egin dugu, zerbait finkoa den edo jendearen kontaktarekin nola alda daitekeen...". Artistak obra horrekin zer nahi duen,



Txuspo Poyoren zuhaitz etxearen artelana.

eta ondoren zer gertatzen denari buruz eztabaidatu zuten ere. "Orain zuhaitz etxea modu jakin batean dago, kristalak apurtuta, hesituta...". Artelanek bizitza dute, "baina batzuetan artistei kostatzen zaigu ikustea". Arteak ingurugiroarekin jolas egiten du.

"Zeri deitzen zaio artea? Nola jasotzen da jarrira dagoen tokiaren arabera? Esaterako, artelan hori Iortia inguruetan egoteko planteatu zuen artistak. Nola aldatuko luke hemen egongo balitz?". Artelan bat bezala hartuko litzateke; arte "kontzeptuala" bihurtuko zen. Aldiz, dagoen tokian ingurugiroarekin bat egin du eta zuhaitz etxe bat bezala ikusten da, "pipero" baten antzekoa. "Batzuk horrela ulertzen dute. Beste batzuk, ez. Artistak ez du horrela ulertzen", azaldu du Sagri Mauleonek. Eztabaida polita izan zela esan du Mauleonek. Herrian egongo balitz, agian gehiago errespetatu eta beste modu batera ulertuko litzatekeela aipatu dute artistek.

Artelanaren ingurua oso garrantzitsua da, beraz. "Espazio publiko bat erabiltzen denean, artelan bat espazio publiko batean jartzen denean, kontsultatu behar dela iruditzen zait", aipatu du Mauleonek. Gainera, espazio batean egon beharrean eskulturak edo artelanak lekuz aldatzeko aukera aipatu du artistak: "zergatik egon behar dira beti leku batean, betirako?". Esaterako, zuhaitz etxeak dagoen tokian "bere momentua" izan duela eta orain Txuspo Poyok planteatu zuen tokian jartzea proposatu du; "artelan hori modu herrikoian berriro parte hartzeko".

Arte eta herria


Herrian edo hirian sortzearen inguruko eztabaida "interesgarria" izan zuten. "Niri herriak ematen didana askatasun gehiago da. Pentsamenduak garbitzen zaizkit. Naturatik gertuago sentitzen naiz". Modu lasaiagoan sortzeko aukera ematen dio herriak Kostari. Hala ere, "zauden tokian zaudela sortu dezakezu". Hirieta sortzen diren gauzak batzuetan herriko iruditegiekin edo naturarekin erlazioan daudela komentatu zuten, hirian ez dagoen natura bat sortzen dute. "Norbanakoaren arabera da":

Urteekin bere identitatea islatzen saiatu dela esan du Mauleonek. "Baten edo bestearen artelanak desberdinak dira, eta badakigu norenak diren. Baina ez da herriko identitatea nahita lantzea. Ez dugu planteatzen". Herrian bizi arren, bizitza nahiko "urbanita" daramatela aipatu du. "Ez gara hain nekazal arlokoak, gaztelaniaz rural bezala ulertzen dena". Herrikoia aipatzerakoan badirudi beti lauburuak edo ekiloreak agertu behar direla. Eta ez da horrela.

Arte garaikidea zabaltzen

Erakusketak egitea "beharrezkoa" da. Kosta: "Interesgarria da ere hor sortzen dena, norbait erakusketa batean sartzen denean, interpretazio librea izatea. Sortzen diren emozioak ez dira beti definitu beharrik". Jolas bat sortzen da, espazioan beste eraldaketa bat. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoa bezalako erakusketa lekuek "jendea arte garaikidera erakartzera" lan handia egin dutela aipatu du Mauleonek. "Marcek aipatu du, desberdin ikusten dugu herri batean erakusketa bat egitea edo hiri batean egitea. Publikoa desberdina da. Hemengo publikoak artea ulertuko du edo ez, eta agian uste dugu hiriko publikoak gehiago ulertzen duela. Nik uste dut ezetz". Iortian egiten diren erakusketa guztiakin herrian sortzen dena oso aberasgarria dela dio Mauleonek. "Batzuei interesatuko zaie, beste batzuei ez, gustatuko zaie edo ez, hausnartuko dute...". Baina erakusketara joango dira eta ikusiko dute. "Hirian interesatzen zaionak bakarrik gerturatzen dira, eta ez denak". Arte herrirratzen du. "Harrituko ginateke ikustean zenbat jende etortzen den. Espero ez genuen jendea". Denborarekin zeinek daki herriko jendea "kultuagoa" ote den. "Hiriak idealizatuta dauzkagu".

Kanpoko bulegoaren proposamena "oso aberasgarria" izan dela esan dute artistek. Oso pozik atera ziren. "Horrelako gauza gehiago antolatzen badituzte gu kontuan hartzeko esan diegu". Gainera, Kostak gogoratu duen bezala, aurrean Arte Azokaren hamargarren urteurrena ospatuko dute Sakanako artistek, eta solasaldiak aktibatze modu bat eskaini die, gauzak planteatzeko "puntu" bat izan da.



Maria Markotegi iragartzeko irudia. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Sortzeko garaia heldu da

Sakanako Mankomunitateak ikasleei eta euskara ikasleei zuzendutako Maria Markotegi eta Nanoipuin lehiaketan 2021eko edizioa martxan jarri du. Lanak martxoaren 26ra arte aurkez daitezke

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Sakanan bizitokia edo ikastetxea duten ikasleek narrazio laburrak, poesiak, komikiak edo booktubeak aurkez ditzakete, kategoriaren arabera, Maria Markotegi sarietan. Hortaz, gazteek sormena lantzea du helburu lehiaketak. Markotegi sarietara lanak bidaltzeko epea martxoaren 26an bukatuko da, eta ikastetxeek ikasleen izenean lanak bidaltzeko aukera izanen dute.

Ikasleen adinaren arabera bost kategorია daude: LHko 3. eta 4. maila, LHko 5. eta 6. maila, DBHko 1. eta 2. maila, DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak. Azken kategoria hontako ikasleek booktube sailean baino ezin dute parte hartu. Lehenengo bi kategorietakoek, aldiz, ezinen dute booktube sailean parte hartu. Bestetik, kategoriaren arabera lanen luzera desberdina izanen da: narrazio laburretan lehenengo kategorian gutxienez orrialde bat aurkeztu behar da, eta laugarren kategorian laugarren katehorian, gehienez. Poesiaren atalean gutxienez hamar lerro eta gehienez, laugarren kategorian, 80 lerro eta komikiaren kasuan orrialderen bat eta bost orrialde tartea dago, kategoriaren arabera. Booktubeen kasuan gutxienez 1,5 minutuko bideo bat egin behar dute hirugarren kategoriatokoei, eta gehienez 4 minutuko sortuko dute bosgarren kategoriatokoei.

Narrazio laburrak eta poesiak 12 puntuko hitz tamainan aurkeztu behar dira. Komikien kasuan DIN-3 tamainakoak izatea gomendatzen dute, eta eskuz egindakoak izan behar dute. Lanak bakarkakoak izanen dira, booktubeak izan ezik, binaka egin daitezkeelako. Lanak Internet bidez aurkez daitezke euskara1@sakana-mank.eus helbidean. Bi dokumentu aurkeztu behar dira; alde batetik, lana izenburuarekin eta, bestetik, datu pertsonalen dokumentu bat. Booktubeak USB batean Mankomunitateko egoitzan edo Wetransfer bidez aurkez daitezke.

Parte hartzaile guztiek oroigarria jasoko dute. Kategoría eta sail bakoitzeko bi sari emanen dira eta hauek Sakanako liburu dendetan erabiltzeko 40 eurotik 120 euro bitarteko txartelak izanen dira. Guztira, 30 sari banatuko dira.

Ipuin txikiak

Maria Markotegi sariarekin batera, Sakanako Mankomunitateak euskara ikasleei bideratutako Nanoipuin saria martxan jarri du ere. Euskalduntzen ari

LAU SAIL DAUDE: NARRAZIO LABURRA, POESIA, KOMIKIA, ETA MAILAREN ARABERAKO SEI KATEGORIA

den Sakanako edozein pertsonak eta Mintzakide programako parte hartzaileek aurkez dezakete 100 eta 150 hitz tarteko lanak. Hiru kategoría daude: A1 eta A2 mailako ikasleena, B1 ikasleena eta B2 eta C1 ikasleena. Mintzakideen kasuan euskara ezagutzaren arabera dagokien kategorian parte ahal izanen dute.

Lanak originalak izan behar dira, euskaraz idatziak, eta ez dira indakeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak onartuko. Idazlanak internet bidez aurkeztu behar dira euskara1@sakana-mank.eus helbidean, PDF formatuan eta beste dokumentu batean datu pertsonalak bidali behar dira. Euskara ikasleek martxoaren 26ra arte dute sariketan parte hartzeko aukera.

Parte hartzaile guztiek oroigarria jasoko dute, eta maila bakoitzeko irabazleek Sakanako liburu dendetan erabiltzeko 150 euroko txartela jasoko dute.

Ekitaldia

2020. urteko pandemia egoera zela eta Sakanako Mankomunitateak ezin izan zuen urtero egiten duen sari banaketa ekitaldia egin, eta irabazleek etxean jaso zuten saria. Egoerak uzten badu, mankomunitatearen nahia ekitaldia berriz egitea da.

Etxepare Sariak

Nafarroako 22 toki entitateek, Sakanako Mankomunitatea barne, antolatzen duten haurrentako albumak sortzeko Etxepare Saria ere martxan da dagoeneko. Helburua haurrei zuzendutako album ilustratuak sortzea da. Lanak euskaraz idatzita egon behar dute, eta argitaratu gabeak izanen dira. Artistek bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean parte har dezakete eta formatua librea da, baina lanak ez dira 20x21 cm baino txikiagoak izanen. Gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte eta testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko, zuriuneak barne. Azken lau deialdietako batean jaso dituzten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira.

Lehiaketan parte hartzeko albumaren maketa aurkeztu behar da, albumean agertuko liratekeen testu zein ilustrazioekin. Maketa pdf formatuan bidali behar da, lan osoa fitxategi bakarrean, info@etxeparesaria.eus helbidera. Gainera, lanaren azken bertsio inprimatua bidali ahal da Leitzako Udalera, posta arrunt bidez. Lanak izengoitiaren izenpeturik egonen dira. Originalak aurkezteko epea maiatzaren 7an amaituko da, eta epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna ekainaren 3a izanen da.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Hotza iritsi da gure etxe eta herrietara

Hotza heltzean etxetik irteteak gogo gutxi ematen du, baina norbera ondo tapatuta dagoenean, tenperatura baxuek ere bere puntua izan dezakete. Horretarako gakoa geruzaka janztea da, baina ondo aukeratu behar dira Michelinen panpinaren antza ez izateko. Ezagutu behar dituzun gako guztiak azalduko dizkizut, eder egoteko eta hotz pixka bat ere ez pasatzeko. Adi.

Arropa termikoa: Geruzaz geruza joan behar da, eta zure gorputzak ukitzen duen lehenengoak (muturreko hotza dagoenean edo kalean ordu dago emango dituzunean) termikoa izan beharko luke. Leggings eta kamiseta oso finak daude, arroparen azpian ezer nabaritzen ez direnak. Begiratu mendiko arropa hau bero eta estiloz jantzita joateko, eguraldiak zail jartzen badizu ere.

Jertse finak eta kamisetak: Ondoren, gaineratu puntu fineko jertse bat. Lepo altukoa izan daiteke nahi baduzu edo kotoizko kamiseta bat.

Pana eta artilea: Bi ehun hauek izarrak dira benetan ondo babesteko. Goiko aldean,

jertse lodi bat jar dezakezu, eta, bolumenik ez gehitzeko, praka barruan sartu pixka bat. Beheko aldean, larruazal-efektuko galtza zabalak aukeratu ditzakezu.

Oinendako: Botak dira ideiarik onena, barrutik ilez forratuak daude eta baita altuak ere, jantzi eta gona horiekin janzteko aproposak. Mendiko botak eta katiuskak alde batera utzi.

Gainetik: Ohialezko berokiak, oso modan daude baina ezer gutxi berotzen dute. Egun hauetan aukera hoberena "plumiak" dira. Hau ez bada nahikoa elegantea, artilezko berokiek ere dezente berotzen dute, baina bi aukera hauek bolumena gehitzen diote gure siluetari. Hortaz, hau definitzeko gerriko poltsak edo gerrikoak erabili.

Burua eta eskuak bero: Oso garrantzitsua da bi zonalde hauek bero mantentzea. Oso modan daude orain kapelak baita betiko artilezko txanoak ere. Eskularruak oso deserosoak dira, baina eskuak eta oinak bero edukitzea oso garrantzitsua da; gainera, orain oso politak ditugu merkatuan eskuragarri.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Duela 32 urte inguru Patxi Agirre arbizuarrak herrian trikitixa eskola jartzearen alde egin zuen. "Tkastolaren bilera batean komentatu zuten, Gipuzkoan asko mugitzen zelako, eta orduan esan zuten ea zergatik ez genuen hemen egiten". Garrantzitsuena ikasleak izatea zen, eta, baziren. Beraz, Agirre Billabonara joan zen Martinen musika etxera: "Eskola egin nahi genuela komentatu nion, eta bertan ikasten ari zen hamasei edo hamazazpi urteko Xabier Gozategi bat klaseak emateko prest zegoela esan zidan". Arazoa Gozategi Orion bizi zela zen, baina bere aita prest zegoen Arbizurako bidea egiteko. "Askotan tokatu izan zait kotxea hartu eta Orioraino joan etorria egitea".

Arbizun hasi eta pixkanaka Sakanako beste herrietara zabaldu zen trikiti eskola, baita Nafarroako beste eskualdetara ere: Baztan, Iruñerria, Lizarralde... Horregatik, duela zazpi urte Nafarroako Trikitixa Jaialdia antolatzen hasi zirenean "garrantzitsua" zen Altsasun egitea. "Hemen jaio eta hemendik zabaldu zelako". Aurten, zazpi-garren edizioa ospatuko dute urtarrilaren 30ean, ostirala, 17:30ean, Iortia kultur gunean.

Soinu txiki bat

Trikitixa "kale giroko" instrumentu bat dela azaldu du Patxi Agirrek. "Betidanik panderoarekin jo izan dena. Soinu edo akordeoi txiki bat da, panderoarekin joan behar du eta erroneria giroan jotzen da". Horrela ezagutu du Patxi Agirrek. "Trikitixa eta panderoa beti lotuta joan dira, baina orain beste instrumentu bat bezala hartzen da trikitia, eta beste instrumentu batzuekin uztartzen da ere. Ez panderoarekin bakarrik. Zabaldu da". Iruñe Agirre Patxiren alaba Sakanako trikitixa eskolaren lehenengo belaunaldiko edo promozio taldekoa da. Sei urterekin hasi zen trikitixarekin, "hasieran zer zen ez nekiela ere. Aitak esan zidan ikasi behar nuela, eta aurrera". Talde polita sortu zuten, eta "harrapatzen" joaten zen. "Lotzen dizu". Orain arte, trikiti irakaslea da Iruñe.

Kaleko giroko instrumentu bat da, "betiko erromerietan" panderoarekin jotzen dena, baina "aspaldi" eszenatokietan jotzeko beste instrumentu batzuekin batera jotzen dena. Horregatik,



Iruñe eta Patxi Agirre trikitilari arbizuarrak.

Trikitixaren iragana eta geroa

Nafarroako VII. Trikiti Jaialdia izanen da hilaren 30ean, larunbata, 17:30ean, Iortia kultur gunean. Trikitixaren "zerbait berezia" eginen duten musikariek parte hartuko dute, urteko "lehenengo" jaialdian

soinu txikia ikastearen arrazoia "kalera ateratzea" dela esan dute agiritarrak. "Pixkanaka herrietara jotzera joatean hasi ginen, eta horrek jarraituzera bultzatzen dizu". Politza zen, Patxiren iritziz: "Bederatzi edo hamar pieza hormari begira jotzeko, bada, ez. Haurrak hartu eta Arbizura atera". Gurasoek kotxeak antolatzen zituzten, eta hemendik hona ibiltzen ziren. "Batzuetan pena ere ematen ziguten. Trikitixa txikia zen, baina haiek txikiagoak ziren. Hotzarekin jo dute...". Alde positiboak atera dizkiotela aipatu du Iruñek. "Instrumentu bat jotzen duzunean, ez da etxean jotzeko".

Egoera

Pandemia egoera dela eta pixka bat "trabatuta" daude. "Kalera atera gabe, zaila da". Hala ere, inguruan ikusten dutenagatik trikitixaren egoera "ona" da. Baina

garrantzitsuena kalera ateratzea dela dio Iruñek: "Jendea ikastera dator gero kalean jotzeko. Hori badaki. Etortzen bada, gero kalea atera beharko du". Trikitixa festarekin lotuta dago, "eta jendea hasten denean hori ere nahi du. Badaki hori eduki behar duela". Festak beste modu batera gozatzeko modu bat da. "Gustatzen bazaizu ez duzu sakrifizio bezala hartzen. Horrela pentsatzen baduzu ez duzula bizi seinale da. Gustatzen bazaizu hemendik hona joaten disfrutatzen duzu".

Hiru hamarkada hauetan trikitiaren munduan nabaritu du-

"ZERBAIT BEREZIA LORTZEN DUGU; BAKOITZAK ZERBAIT DESBERDINA EGITEN DU"

ten aldaketa nagusia trikitilarien adinean dago: "Hasi ginean denak haurrak ginen. Orain, ez dago adinik. Hor aldaketa egon da. Klasean 7 urteko haur bat izan dezakezu, edo 70 urteko heldu bat. Guztiok elkarrekin arazorik gabe ateratzen gara. Helburu berdina dugulako". Hala ere, Sakanan gehiago "kostatzen" dela aitortu du Iruñek. "Baina ez du adinik. Esaten didate joko zutela baina adin honekin, eta denak haurrak direnez...". Iruñerrian, aldiz, adin guztietako jendea ikusten da trikitixa taldeetan.

Aurten ere

Nafarroako VII. Trikiti Jaialdia ospatuko dute hilaren 30ean, larunbata, 17:30ean, Iortia kultur gunean. Jaialdiak antolatuko aurretik, Nafarroako Trikiti Egunak antolatzen zituzten eta, aurretik, txapelketak. "Oñatiko jaialdi

batera joan ginen eta gu bezala aritzen diren Etxalargo Elizagoien ahizpekin elkartu ginen. Horrelako zerbait antolatzeko ahalmezez galdetu, eta hurrengo urtean lehenengo Nafarroako Trikiti Jaialdia ospatu genuen". Urteko lehenengo jaialdi bezala antolatu zuten, urtarrilean, eta lehendabizikoa Altsasun egin zuten, "Sakanan hasi zelako trikitia". "Altsasun egin beharrean beraien zonaldera eramatea erabaki genuen, eta urte bat hemen eta beste urte bat Lesakan egiten hasi ginen". Behin ere Burlatan egin behar izan zuten, kultur gunea erabiltzeko adostasunik ez zutelako lortu. Hortaz, elkar-teak bere baliabideekin antolatzen du jaialdia, "eta sarrerek gastuak ordaintzeko justu ematen dute".

Aurtengo osasun krisialdiarekin, gainera, jaialdia antolatzeko "buruhauste handiak" izan dituztela esan du Iruñek: "Azken momentura arte ez genekien egin ala ez. %50ko edukiarekin ezin genituen gastuak estali...". Egun batean baietz esaten zuten, hurrengoan egoeratik ezin zela eta ezetz. Zalantza asko izan dituzte, baina azkenean, urteroko arrakasta eta interesa ikusita, aurrera egitea erabaki dute. Parte hartzaileen zerrenda ere egina zuten. Gainera, EITB-k ere jaialdian interesa adierazi zuen, eta laguntzeko prest agertu zen. Aurkezlea Ilaski Serrano izanen da. Sarrerak Iortia kultur gunearen webgunean eta leihatilan salgai daude, 12 eurotan.

Desberdina

Urtero jaialdiaren kartela aldatzen joaten dira. "Puntako musikariei eskatzen diegu zerbait desberdina egitea, ez denak berdina egiteko. Buruari buelta batzuk emateko eskatzen diegu". Patxi Agirrek gogoratu duenez, jaialdi bat da, "ez erroneria". Hortaz, musikariei denborarekin abisatzen diete eta "baiezkoa ematen dutenean" zerbait berezia egiten dutelako da. Bakoitzak hiru pieza jo behar ditu.

"Zerbait berezia lortzen da, batak bestearekin ez dauka zeri-kerikirik. Orduan, jaialdi polita ateratzen da. Orain arte, ongi joan da". Aurtengoa are "desberdinagoa" izanen dela azaldu dute: Estangatarrak, Roberto Etxeberria eta Eusebio Mayaldi, Monik Valor eta Eider Iraola, Eingo taldea, Neomak, Ander eta Xabi Malbadi eta Enrike Zelaia ariko dira Iortia agertokian.

"Falta egin nion eta partida gelditu nuen"

Leire Lazkoz altsasuarrak Kirolaren Balioak Positiboan saria jaso du, saskibaloia partida batean berak izandako jokabidea "joko garbiaren adierazlea" dela baloratu dutelako

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

1 CBASK taldeko jokalaria zara. 7 urterekin hasi nintzen Altsasuko Saskibaloia Taldean (CBASK), eta aurten 14 urte beteiko ditut; beraz, 7 urte egingo ditut klubean. Aurten haur mailako taldean nabil.

2 Abenduaren 18an Nafarroako Kirol Institutuko zuzendari Miguel Pozuetak Kirolaren Balioak Positiboan izeneko saria eman zizun, partida batean izan zenuen jarreari aitortza egiteko. Nonbait, zure jokabidea joko garbiaren adierazlea izan zen. Zer gertatu zitzaizun? 2019ko abenduaren 21ean Iruñeko Paz Zigandaren kontra ari ginen jokatzeko etxean, Zelandin. Partida gure taldeko ordezkari batek eta euren taldeko beste batek arbitratzen zuten. Nik nahi gabe falta egin nion Paz Zigandako jokalaria bati, baina arbitroak ez ziren konturatu. Orduan nik partida gelditu nuen, falta hori egin nuela esateko.

3 Beraz, zuk falta egin zenuela esan eta partida gelditu zenuen. Bai. Nire faltagatik Paz Zigandakoek bi tiro bota zituzten. Partidan berdinduta geunden, partida bukatzeko 90 segundo falta ziren eta beraiek aurreratu ziren.

4 Erabaki hori gehiegi pentsatu gabe hartu zenuen? Inkontzienteki atera zitzaidan, pentsatu gabe. Falta egin nion eta unean bertan esan nuen.

5 Beste batzuetan berdin jokatu al duzu? Egun hartan falta egin niola konturatu nintzen, baina beste batzuetan ez zara jabetzen arbitroak esaten dizun arte. Egun horretan konturatu nintzen eta esan nuen.



Leire Lazkoz Romero, CBASKeko saskibaloia jokalaria. UTZITAKOIA

6 Taldekideek zer esan zizuten? Ongi hartu zuten.

7 Saskibaloia jokalaria zaren aldetik partidetan halako jokaririk ikusten dituzu? Normalean "zikinago" jokatzeko da. Baina niri partida gelditzea barrutik atera zitzaidan.

8 Jarrera horregatik Balioak Positiboan Saria emango zizutela nola hartu zenuen?

Sorpresa handia izan zen niretzat. Saskibaloia Federaziokoak deitu ninduen sariaren berri emateko eta shockean geratu nintzen. Baina aldi berean poz handia hartu nuen. Politza da halakoei errekonozimendua egitea. Abenduaren 18an Nafarroako Kirol Institutura joan nintzen gurasoekin eta han eman zidaten saria: poltsa bat, puffak eta Intersport Irabian gastatzeko 175 euroko txartela. Horretaz

gain, bideo bat ikusi genuen. Bideoan nire irudiak agertzen ziren eta esaten zen joko garbiaren adierazlea izan zela nire jokalaria. Senitartekoek eta lagunek ilusio handiarekin hartu zuten ni saritu izana.

9 Pandemia dela eta, aurten nola zabilzate CBASKen? Asteleheneretan, asteazkenetan eta ostiraletan entrenatzen dugu, egunean ordu bat. Hasieran ezin genuen kontaktarekin entrenatu, baina orain bai. Baina txapelketa ez dugu hasi.

10 Nafarroako Kirol Institutuak 34. Nafar Kirol Jolasak deitu ditu. Oraindik ez da lehiaketaren datarik zehaztu, baina betebeharrereko arauak zehaztu dira: partidak publikorik gabe jokatu dira, osasun araudi zorrotzak egongo dira... Liga hasteko aukera izango duzue ala uste al duzu? Nik baietz uste dut, baina ez uste honetan. Akaso otsailetik aurrera... Kutsatze datuen arabera.

11 2020ko martxotik lehiatu gabe zabilzate. Uste duzue jokoak geldialdi hau nabaritu duela?

Bai, zer edo zer jaitsi dugu, bereziki defentsan. Martxotik lehiaketan aritu gabe gaude eta entrenatu ere kontakturik gabe entrenatu behar izan dugu duela gutxira arte, eta hori nabaritzen da. Kontaktua gabe entrenamenduekin ezin izan ditugu defentsa eta bestelakoak behar bezala entrenatu. Aurten haurren mailan gaude eta 1. mailan aritzea erabaki dugu, gure burua gehiago motibatze eta taldea gehiago hobetze. Izan ere, gure taldeak ez ditu emaitza oso onak lortzen. Iruñeko taldeak handiak dira, jokalaria mordoa dituzte eta onenak hautatzen dituzte. Hemen ez ditugu horrenbeste baliabide, baina guk oso gustura jokatzeko dugu, pozik, animatuta. Eta gure burua estutzeko nahiago dugu 1. mailan aritzea.

**Ba al zenekien
Guaixe Fundazioaren
bazkide izanda,
gure zerbitzuetan
deskontua
izanen duzula?**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA**

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu